

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko irailaren 12a / 641. zenbakia



68 URTEZ ARDIAK ZAITZEN

Domekan, omenaldia egin
zioten Joxe Bixente
Etxabe arrasatearrari 68
urtez artzain moduan
jardutearren

ORAIN ETA HEMEN: GRIPEAREN AURKAKO KANPAINA/8 • KULTURA: 'ARRASATE MONDRAGON IRUDIAK'/14

ARGAZKIA: ARRASATE PRESS

EDERTASUN GIDA/2

'Garrantzitsua da orrazkera kontuetan datorren joera zein izango den jakitea'

San Andres auzoan hamalau urte egin eta gero, Zerrajerako etxeetan ile apaindegi berria egitea erabaki zuen Inesek. Iaran ile apaindegia, hain zuzen. Iaranek eskaintza zabala du: ilera-ko tratamendua, era guztietako ile luza-penak, solariuma, estetika...

Inesen esanetan, ezkongaiendako abantaila handiak dituzte, egun berezi horretan lirain egoteko behar duten guztia daukate-eta. Ilea apaintzeaz gain, bertan maki-llatu, azazkalak txukundu eta margotu... Horrela, ezkongaiak ez dute hara eta hona ibili behar; Iaranen aurkituko dute behar duten guztia.

BERRIA BAINA ESPERIENTZIADUNA

Iaran orain dela lau hilabete zabaldu zuten, baina bertako langileek urte askotako esperientzia dute: "Ile apaindegi batean esperientzia izatea oso garrantzitsua da, baina modan dauden orrazkerak ezagutzea ere funtsezkoa da. Bezeroak gero eta zorrotzagoak dira, eta argi dute zer gura duten. Gauza konkretu bat eskatu eta hori egiteko gauza ez bazara, jai daukazu". Orrazkera guztien berri izatea ez da txantxetako kontua, baina Iaranekoek ahalegin berezia egiten dute: "Aldizkari, telebista... Kanean gabiltzanean ere jendearen orrazkerari begiratzen diogu; atera kontuak".

Orrazkera kontuetan azken joeren berri izatea ondo dago, baina ile apaintzaile on



Laura, Isa, Ines eta Itsaso aurkituko dituzue Iaran ile apaindegian.

batek orrazkera horiek egiteko gauza izan behar du. Horretarako, urtero-urtero Londresera joaten dira Iaran ile apaindegikoak: "Inbertsio modura egiten dugu bidaia hori. Egia esan, oso garestia izaten da, baina merezi du. Londrestik ideia berriekin etortzen gara, eta badakigu orrazkera kontuetan hurrengo joera zein izango den".

Lehenago ere aipatu dugu Iaranen ilera-ko tratamenduak dituztela: "Tratamendu horiek ez ditugu guk egiten. Astero-astero espezialistak etortzen dira Bilbotik, eta bezero bakoitzak bere tratamendua du, daukan arazoaren arabera".

AHOLKU BATZUK

Iaran ile apaindegikoei hainbat aholku emateko eskatu diegu, eta Inesek gauza bat azpimarratu gura izan du: "Jendeak ez dezala burua gel batekin garbitu, xanpu onak erabil ditzatela. Badirudi lelokeria dela, baina jendeak harrapatzen duen lehenengo gauzarekin garbitzen du burua, eta hori oso kaltegarria da. Orain baliteke arazorik ez izatea, baina luzera ileak igarri egiten du hori: ilea erortzen da, zahia azaltzen da, hazkura izaten dugu... Gauza batzuetan diru mordoak gastatzeko ez dugu erreparorik izaten; hortaz, ilea zaintzeko ere ez izan erreparorik".

Ile apaindegira joateko astia izaten ez duzenok jakin ezazue egubakoitzetan Iaran egun osoan egoten dela zabalik.

ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00 / Abuztuan: 1etik-8ra eta 25etik-31ra zabalik

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Aijer HR CLASSY BIOTHERIA VALMONT

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14. 943 79 87 62

BITXORI
Ileapaindegia

Erdiko kale 52.
Tel.: 943 79 88 32

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 71 23 91 telefonora

KALEINKESTA/ Ze egin biherko litzake lan istripuek gutxiketako?



IKER ARANBURUZABALA
Langillie

Nik pentsetan dot egin biher dan leengo gauzie langilliek kontzientzietie dala: konturetu daittezela babes neurriek euren dako diela. Ardura hori, baiñe, enpresiena da.



JUAN ANDRES GALLARDO
Langillie

Produkziñuari horrenbeste begittu biherrien, lan egitteko moduari begittu biher jako. Lana azkar egitten danién, segurtasunak behera egitten dau, eta ardura hori enpresiena da.



LOURDES VIGUERA
Etxekoandrie

Esaten daue jefiek eukitten dauela danan kulpie, baiñe nik pentsetan dot langilliek be kulpia haundixe daukiele. Izen be, eurek, sarritan, ez daue gure izeten kaskue jarri.



GAIZKA ARANEGI
Langillie

Enpresiek babes neurri gehixago ipiñi biher daue, eta langilliek horreik babes neurriok bete. Langilliek jakin biher dau babes neurriek beretako diela, erresetetako dauzela.



EIDER BEREZIARTUA
Langillie

Ez dittut kontu horren gaineko legiek ezaguketan, baiñe legiek ondo badauz, langilliek eta enpresiek egin biherko leukiena da lege hori bete. Legie txarto badau, kanbixau egin biherko da.



NELI FERNANDEZ
Langillie

Horri gaiorri daukon inportantzia emun biher jako, eta ez jako emuten. Enpresa bakotzak babes neurriren gainien lan egitten dauen departamentue euki biherko leuke.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK EHUNKIAK BATZECO EDUKIONTZIAK Debagoieneko Mankomunitateak ehunkien bilketa zerbitzua jarri du abian. Ibairean hainbat edukiontzia ipini dituzte. Arrasaten hiru ipini dituzte: Muxibarren, Kontzezinon eta Musakolan. Erabiltzen ez ditugun arropa, oinetako, izara eta bestelakoak birziklapen enpresetara bidaliko dituzte. Herritarrek ondo hartu dute ekimena.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

Auto bariko eguna

Irailaren 22a izango da auto bariko eguna, baina ekimenak irailaren 15ean hasiko dira.

KIROLA / 10

Mondraren aurkezpena

Josu Zubiak hogeita bost jokalaria izango ditu aurtengo denboraldiari aurre egiteko.

KULTURA / 13

Kirmen Uriberi elkarrizketa

Bihar, zapatua, Kirmen Uribe idazlea Arrasatera etorriko da. Elkarrizketa egin diogu.

ASTEKO DATUA

68

URTE EGIN DITU JOXE BIXENTE ETXABEK ARTZAIN

Musibar baserriko Joxe Bixente Etxabek 68 urte egin ditu artzain. Asteburuan, Artzain Egunean, omenaldia egin zioten. 81 urte ditu eta artzaintzan jarraitzeko asmoa dauka oraindik.

BESTEKEKESANA

“ Oso pozik nago semeak Espainiako Biran lortutako garaipenarekin. Tourreko arantza

sartuta zeukan eta atzoko etaparekin pozik dago (...) Emaztea etapa guztiak ikustera joaten da. **Nik, ordea, asteburuetan bakarrik ikusi ahal izaten dut. Telebista aurrean berari bultzaka ibiltzen gara. (...)** Atzoko etapa irratian entzun nuen eta gero, lagun batek grabatuta, **telebistan ikusi nuen (...)** **Beti daukagu semea podiumean ikusteko txirrindularitza esker gutxiko kirola dela... Horrelako egun oso gutxi egoten dira, baina atzokoa oso pozgarria izan zen, berarentzat, noski, eta baita guretzat ere (...).** **Hamalau urtetatik dabil bizikleta gainean eta emango du zer esan...**

JOSEBA ETXEBARRIA
ARRASATE IRRATIA/03-09-10

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Zeuri, Enrike

Txoko hontatik idatzi gure izen dotzut oinguen... edarra ein dutzue! Herriko eta Herrixendako salbatzaile dien horreik eruen zinttuen Inperioko tribunaletara eta barriri be, atzera, ondo ezauketan dittuzun ziega horreitan sartu zaue. Eztakitt baiñe bengantza itxurie hartzen dutzet honi. Zeuk ondo dakitzu hori. Hala ta be, herriek be zeure egoerie zein dan jakin daixen idatzi gure izen dutzut hemendik. Kartatxo hau, horraiño, isolamenduen preso zaittuen ziega hortaraiño allegau ingo ete dan zalan-tzan banau be.

Urte luzetan egon zara Inperio kolonizatzaileko kartzeletan hara ta hona. Orduen ezautu gauen elkar, noxien behin be kartatxon bat idazten gutzen elkarri, biz-pahiru bisitta be euki dittuau... neure partetik bizi izendakue ezin lerro honeittan hain motzien esplikau. Baiñe 16 urte luzetan barruen euki

eta gero, atzera sartu zaue barrure, atzera hasiko die lagun eta familixakuen fan-etorriek... horixe gure daue eta, preso dazen herriko seme-alabak kartzela urtietara kondenetiaz batera, eskubide barek iztie, estudixo barek, ingurukuek sufrirutie, duintasuna be kentzie... eta horixe da zeuk, beste askok moruen erakutsi dozune, zeueik danok herri honi emun dutze-zuen lekziñue. Eta horrek amorraketan dittu, eta horregatik eruen zaue barrure... Baiñe presuen

kontra, danetariko ekimen abertzale eta ezkertiarren kontra dabitzen moruen, eztaue ezebe lortuko... zeun duintasan erakustaldixe herri honen errelejo garbixe da eta.

Amaittu aurretik, neuk be bat ein gure nauke familixiek herriren aurrien eta sasi-epaile eta dalakuek entzun daixien, ein dauen eskaeriaz: *Enrike etxera!*

Besarkada bat eta laster arte, Enrike.

“Presuen kontra, danetariko ekimen abertzale eta ezkertiarren kontra dabitzen moruen, eztaue ezebe lortuko”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziabar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 12**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 13**
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99
- DOMEKA, 14**
Irizar. Erguin 11. 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 15**
Amezua. Santa Marina 32 ... 943 79 09 74
- MARTITZENA, 16**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 17**
Español. Araba etorb. 17. 943 79 18 65
- EGUENA, 18**
Azkoaga. Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUBAKOITZA, 19**
Azkoaga. Iturriotz 33. 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44
- ERTZAINITZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiatuen egoitza ... 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Teresako eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

URIBARRI-ERGUINGO JAIAK
Gaurtik domekara bitartean Uribarri-Erguingo jaiak ospatuko dituzte. Besteak beste, domekan herri kirolak eta bertsolariak -Aitor Mendiluze eta Ekaitz Goikoetxea- izango dira, eta gaur eta bihar ere egongo da zer ikusi.

ERREZITALDIA GAZTETXEAN
Bihar, zapatua, AGAKOk eta Putz-ek errezitaldia antolatu dute. Kirmen Uribek ikuskizuna eskainiko du eta Manex Agirrek eta Eneko Barberenak errezitatu egingo dute. 19:00etan izango da.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
Etzi, domeka, Arantzazura erromesaldia antolatu dute. Hitzordua 06:30ean egin dute Kontzeziñon. Arantzazura autobusean joan duenak Ecuador Bidaietako bulegoan eskuratu beharko du txartela. Autobusa 09:30ean irtengo da.

GRIPEAREN AURKAKO TXERTOA
Irailaren 15etik urriaren 31ra arte iraungo du gripearen aurkako kanpainak. Anbulatorioan ipiniko dituzte txertoak.

'AZTERKOSTA' ERAKUSKETA
Irailaren 11tik 21era Azterkosta erakusketa ipiniko dute Monterronen.

AEDrenAGENDA

ZAHAR BERRI
Zahar Berrin euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak behar dituzte elkarri euskara praktikatzen laguntzeko. Jo AEDra izena ematera.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berria egunkariaren akzioak oraindik salgai daude AEDn. Jo AEDra bulego orduetan, goizez edo arratsaldez.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Kirol begiraleak euskaratzeko programa

Ibarreko euskara zerbitzuen ustetan, orain dela hamar urte gaztelania zen nagusi kirolean. Arrazoi horregatik, entrenatzaileak eta kirol begiraleak euskaraz trebatzeko ikastaroak antolatu zituzten. Horrez gainera, futbol arauen eta taktiken liburua euskaratzeko beka atera zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Umeterixia"

Ume mordua.
—*Bostak aldian sekulako umeterixia izaten da ikastola aurrian.*

Umeak, haurrak, orokorrean.
—*Umeterixia ziero lelotuta dago telebisinuakin.*



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 3	9 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 5	27 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	47,3 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 3	20 °C	9 °C	2,1 l/m²
Eguena, 4	25 °C	15 °C	0,8 l/m²
Egubakoitza, 5	27 °C	13 °C	0,2 l/m²
Zapatua, 6	19 °C	17 °C	2,9 l/m²
Domeka, 7	23 °C	17 °C	- l/m²
Astelehena, 8	20 °C	14 °C	38,4 l/m²
Martitzena, 9	19 °C	15 °C	2,9 l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Berriak-en aldeko akzioen salmenta

Debagoienean berezia izan da Berria egunkariaren akzio salmenta, baina orokorrean ondo joan da, ipinitako helburuak bete egin dituzte-eta. Horren ganean aritu gara aste honetan Liher Larrea eta Arantzazu Arroiaberekin. Elkarrizketa hori zapatu eta domekan errepikatuko dugu, 11:00etan.

Bestalde, telebistaren ganean Itxaro Zubillaga, Unai Iparragirre eta Iban Gonzalezekin izandako solasaldia ere berriro eskainiko dugu asteburuan.

Senegal ezagutzera hiru lagunekin

Andoni Goiti, Mikel Alberdi eta Iban Toledo, hirurak Goiena Telebistako lankideak, Senegalen izan dira abuztuan. Afrikako herrialde hura ezagutu gura dugula eta, martitzenean herriko irratira gonbidatuko ditugu. 10:00etatik aurrera izango gara eurekin.

Bestalde, datorren astean Donostiako Zinemaldia hasiko denez, horren ganean arituko gara. Filmez gain, Gipuzkoako hiriburuan izango den giroaz ere jardungo dugu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
- 09:00-11:00 **UDA GIROAN Albisteak.**
Elkarrizketak.
Hondartzen, igerilekuen eta urtegien egoera.
Eguraldi iragarpena.
Agenda.
- 11:05 **Musika.**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **UDA GIROAN errepikapena.**
- 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- ZAPATUA**
- 11:00 **Asteko elkarrizketak:** Liher Larrea eta Arantzazu Arroiabe, Berria-ren akzioen salmentaz; Mamel Ezkerrarekin Vietnamen; Naroa Enekotegi, mezzosopranoa; Markel Duran eta Xabier Vallina, Eurojunior saioaz; Iban Gonzalez, Itxaro Zubillaga eta Unai Iparragirre, telebistako ikasturte berriaz...
- DOMEKA**
- 11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Zirkulazio arazoak Otolora kalean

Joan den astean, eguen goizean, zirkulazio arazoak izan ziren Otolora kalean. Banaketa lanetan zebilen kamioi txiki batek matxura izan zuen, eta errepide aurrean geratu zen, ez aurrera eta ez atzera. Hori dela-eta zirkulazio arazoak izan ziren Arrasateko erdialdean.

Ezbeharrak goizeko zortzietan izan zen, Monterron Jauregiaren eta Muxibarko biribilunearen artean. Kamioia Bergarako noranzkoan zihoan eta matxura izan zuen gurgil batean. Udaltzainek kalea itxi egin behar izan zuten, eta zirkulazioa Garibai etorbidera desbideratu.

Jantziak batzeko edukiontzia jarrita

Etxean soberan dauden arropa eta oihalendako irtenbide berria dago joan den astea ezker. Mankomunitateak arropak batzeko edukiontzia jarri ditu ibarreko herrietan, eta edukiontzi horiek zuriak dira.

Soberan dauden arropa, oihal edo oinetakoak plastikozko poltsa itxietan utzi beharko dira, biltzerakoan edo garraiatzerakoan busti edo apurtu ez daitezen. Ibarrean 13 edukiontzi jarri dituzte. Arrasaten, esaterako, Muxibar plazan, Kontzezino kalean eta Musakolako aparkalekuan jarri dituzte.

Zarugalde kalea itxita, tarteka

Irail hasieratik hona Zarugalde kalea itxita egon da tarteka. Izan ere, orain arte egiten ibili diren etxeaz gainera, kale hartako beste etxe bat botatzen hasi dira. Horren ondorioz, hemendik aurrera ere, tarteka, Zarugalde kalea itxita egongo da.

Etxea botatzeko lanok Derribos y Escombros Jundiz izeneko enpresak egingo ditu. Arduradunak adierazi digun moduan, teilatutik hasiko dira etxea eraisten, eta inguruko etxebizitzendako ez da inolako arriskurik izango.



Haur sahararrak etxera itzuli ziren

Udan Arrasaten egon eta gero, joan den asteburuan itzuli ziren haur sahararrak etxera. Zortzi haur etorri ziren gurera, eta bat Arrasaten geratu da, osasun arazoak ditu-eta. Joan aurretik, baina, askaria egin zuten udaletxean. Familien esanetan oso esperientzia positiboa izan da.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Kazetariak eta kazetariak

Joan den astean, Garzon epailearen aginduz, Taysir Aloni kazetari siriarra atxilotu zuten, Granadan. Taysir Aloni kazetaria oso ezagun bilakatu zen Qatarko Al Jazeera telebistarako Afganistanen egin zituen lanengatik. Aloni AEBetako armadak Afganistan inbaditu zuenean han gelditu zen kazetari bakarra izan zen eta, horrez gainera,

Osama Bin Laden elkarrizketatu zutela diote.

Gero, Irakera jo zuen, eta AEBetako armadaren inbasioaren aurretik, oraindik Saddam Hussein agintean zegoela, Husseinek Iraketik bota zuen. Kontua da Granadan ezkondu dagoela eta hantxe familiarekin atsedean hartzen zegoela, Espainiako poliziak atxilotu zuenean. Garzon epaileak Espainiako

Estatuko Al Qaeda sarearekin harremana duela egotzi dio, eta hau idazterakoan inkomunikazio egoeran zegoen atxilotuta.

Batzuen ustez, kazetariak leku eta une batzuetan soberan egoten dira, eta horregatik aspaldian kazetarien eskubideak ez dira bermatzen. Horrez gain, Garzon epaileak bere burua nazioartean ahalik eta ezagunagoa egin gura du eta horretarako edozein asmakizunek balio du, badakizue.

ASTEKOIRUDIA

ARRASATE • MONDRAGON



ARRASATE ARGITAN

ARRASATE IRUDITAN LABURBILDU DUTE

Asteko irudia baino gehiago, irudi sorta handia dugu aste honetan albiste. Arrasate Argitan elkarteak Arrasate Mondragon Irudiak izeneko liburu mar-dula aurkeztu berri du. Arrasateko idazle, kazetari eta argazkilariez osatutako elkarte horrek kanpoan Arrasate ezagutzera emateko moduko argaz-

ki bilduma osatu du; horrekin batera Arrasateren eta Euskal Herriaren gaineko idatziak batu ditu.

Liburu horren argitalpenak jakin-min handia piztu du, eta herritar askok parte hartu zuten liburuaren aurkezpenean. Ea Arrasateren gaineko lan gehiago egiten diren! /I.B.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otolora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Binloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebedun hizkiak



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ELKARRIZKETA

JOXE BIXENTE ETXABE/ARTZAINA

“Bi urte mendian egon eta gero, etxean esaten nuen uda pasatzera joaten nintzela mendira”

U.M.

Aspaldiko ezaguna dugu Joxe Bixente Etxabe gurean, aspaldi-aspalditik dabil-eta artzain lanean. Hain justu, aurten 68 urte bete ditu lanbide horretan. Hala, beste artzain batzuekin batera omenaldia egin berri diote Legazpin.

Aurreko domekan omenaldia egin zizueten zenbait artzaini. Zu bezalako asko dago, ala?

Neu eta beste hiru. Baina zaharrena neu izango naiz, seguru aski.

Artzaintzan 68 urte egin dituzu; zenbat urte dituzu orain? Noiz hasi zinen artzain?

81 urte egin nituen maiatzaren 4an. 1935ean hasi nintzen artzain. 13 urte egin behar nituen maiatzaren 4an, eta maiatzaren lehen edo 2an bidali ninduten lehenengo aldiz Degurixara ardiekin. Mendian bete nituen 13 urteak.

Bakarrik zeunden?

Aldamenean artzainak zeuden, eta lo egitera beste gizon batengana joaten nintzen. Hark goizean goiz esnatzen ninduen, ardiengana denboraz joateko. Ardiak batu behar ziren, gaztak egin, bi txerri ere banituen...

Gogorra izango zen, bada?


Oso gogorra. Izan ere, 13 urterekin esperientzia txikia nuen, mendian guztia nik egin behar izaten nuen (lapikoa ipini...); han ez zegoen amarik! Hasiera txarra izan zen, oso txarra. Baina behin urte bi pasatu nituenerako txakurtuegin nintzen bertan. Harrezkero, gustura. Etxean esaten nuen uda pasatzera joaten nintzela mendira.

Zenbat denbora egiten zenuen mendian orduan?

Maiatzaren lehenengoan joaten ginen eta Santiago egunera arte han egoten ginen (uztailaren 25era arte). Hiru hilabete. Orain ez. Orain, ardiek bildotsak lehenago egiten dituzte eta horren arabera guztia lehenago egin behar izaten da. Aurten uztailaren 4an batu ditut ardiak.

Zelakoa izan da orain arte artzainaren bizimodua?

Gogorra. Lehenago zelai gutxi zegoen ardiendako; asko lantzen ziren zelaia, eta ardiendako zelai muturrak besterik ez zen geratzen; ondorioz, ardiak zaindu egin behar izaten ziren, handik mugituz ez zitezten. Euripean, hankak busti-busti eginda, hantxe egon behar! Hankak topeka erabiltzen genituen, berotzeko. Lehen, eguraldi ona edo txarra egin, ardia beti kanpora ateratzen zen. Ez zegoen



UBANE MADERA

“13 urterekin esperientzia txikia nuen (...) eta hasiera txarra izan zen, oso txarra”

barruan geratzerik. Orain ez da horrela.

Gerra denboran ere mendian bizi izan zinen?

Bai. Gerra piztu zenean, hemengo jende askok ihes egin zuen, gorriengandik ihesi. Arrasateko gizon handiek ere hala egin behar izan zuten: Elmako, Cerrajerako... buruak. Horiak guztiak nire txabolan egon ziren.

Pentsa ezazu, neuk 14 urte nituen, eta guztiendako taloak neuk egiten nituen. Zortzi gizon handi egon ziren gure txabolan; egunez goiko koba baten gordeta egoten ziren eta iluntzean txabolarara jatera etortzen ziren. Eta gero, gerra baretu zenean, etxera buel-

“Gizon handiek ihes egin zuten gerra piztu zenean; zortzi lagun geure txabolan izan ziren”

tatu ziren.

Baina geroago, gerra indartu egin zen. Elgea trintxeraz beteta zegoen. Egoera haren aurrean, ardiak kendu genituen Degurixatik. Ni Mendiolara joan nintzen, eta hilabetez egon nintzen han. Gero, nazionalak etorri zirenean, berriro ere gora joan nintzen ardiekin. Halako baten, San Andres egunean, elurra egin zuen. Araoztik gora dagoen auzo batera joan nintzen ardiekin. Gorriek aurrera egin zuten gogor; eta frontea ipini zen hemen. Nik tiroak entzun nituen, eta etxe aldera jaitsi nintzen, bainuetxeko bidetik. Goitik behera nentorrela, Lezaman txaletean erreketek zeuden.

“Etorkizun beltza dauka artzaintzak; gaur egun ardiekin dirua egitea oso zaila da”

Sarjentua Aretxabaletako semea zen, Joakin Galdos. Hark euskalduna nintzela atzeman zidan; eta Musibarkoa nintzela jakitean, esan zidan hara ezin zela joan, gorriek bidea hartuta zutelako. Aretxabaletako udaletxera eraman ninduten, eta hango osabarekin utzi ninduten. Hurrengo egunean berriro mendira igo nintzen. 13 egunez egon nintzen geldi, aita etorri zen arte. Bedoñatik zehar jaitsi nintzen. 14 urte besterik ez nuen.

Eta halako hamaika kontu izan genituen gerran.

Artzaintzan horrenbeste urtean ibilita, ez zaizu sekula burutik pasatu beste ogibide-

ren bat hartzea?

Intentzioa izan nuen, baina etxean ez zegoen beste artzainik eta eutsi egin ninduten. Gero, handi egin nintzenean gustura nengoen.

Oraindik ere artzaina zara? Zenbat artzain geratzen zarete Degurixan?

Artzaina naiz, bai, eta 160 bat ardi ditut. Degurixan hiru artzain bakarrik geratzen gara.

Oraindik ez duzu erretiratzeke asmorik?

Oraindik ez. Dena dela, ni ez nagoenean semea ibiltzen da.

Edozelan ere, asko aldatu da artzainaren egoera, ezta?

Lan errazagoa da orain. Baina diru aldetik margen txikia dauka. Bildotsengatik, adibidez, orain dela 15 urteko prezioa ordaintzen dute. Eta ardi zaharrak ez du ia ezer balio: ona bada 18 euro, ona ez bada 6 euro-edo. Etorkizun beltza dauka.

Dena dela, oraindik badago artzain izan gura duenik, Arantzazun ikasten dabilzanak... Zer esango zenieke?

Artzainak berezko sena behar du, baina han ikasi egingo dute, eta ahalegina eta zaletasuna bada, artzainak irtengo dira. Hori bai, gero, lekua behar du, zelaia, dirua... Orain zailagoa da. Eta margen txikia dago. Ardi bitartez ez du dirurik egingo. Bizi egingo da, baina dirurik ez du egingo. Dirua egiteko ardi mordoa behar da. Jurnal apurra ateratzeko 300 ardi behar dira, gutxienez.

Akaso beste zerbaitek lagunduta-edo?

Adibidez, ogia saltzen. Hemen ogia saltzen ibili direnek, guztiak egin dute dirua. Ogi ona eginez gero...

Musibar baserrian beti izan dituzue ardiak?

Banaka batzuk zeuden aita-jauna etorri aurretik, 20-30 bat. Eta hark ekarri zituen gainerakoak.

Aitajauna Marindik etorritakoa zen. Behin elur handi batzuk egin zituen Marinen eta amaia lagun zuela artaldearekin behe-rantz mugitu zen. Handik hona etorri eta ikusi zuenean hemen leku polita zegoela, galdetu zuen ea ardiekin hartuko zituzten, elurtea pasatu arte. Eta baietz. Hemen gure amandrea zegoen, 20 urterekin alargun. Eta Pedro artzainak han egun batzuk egin zituztenean galdetu zioten ea ezkontuko zatekeen amandrearekin. Hark baietz. 36 urte zituen Pedrok eta amandreak, berriz, 20. Hark 80-100 ardi inguruko taldea zeukan; orduko sasoirako asko zen. Handik sortu zen gure izatea.

HEZKUNTZA/ Ikasturte hasiera

Astelehenean hasiko dira berriro eskoletan Arrasateko neska-mutiko gehienak

U.M.

Gehienoi oporrak aspaldi samar bukatu bazaizkigu ere, gaztetxoak oraindik ere oporretan daude. Hain justu, datorren astelehenean, hilak 15, hasiko dute aurtengo ikasturtea. Herriko ikastetxe guztietan D eredia aukeratu du gehiengoak.

Astelehenean, etxe baten baino gehiagotan negarrak entzungo dira goizean goizetik. Oporrei agur esan eta eskolara bueltatu gura ez duten umeenak izango dira. Beste askok gustura hartuko dute eskolarako bidea, lagunak ikusi, ikasi eta jolasteko irrikatzen. Eta seguru guraso askok lasaitu ederra hartuko dutela umeak berriro eskolara bidaltzean.

Kontuak kontu, ikasgelak ume zarekin beteko dira astelehenean. Hala izango da Arizmendiko ikastetxeetan, Herri Eskolan eta Lanbide Hastapenean.

D EREDUA NAGUSI

Ikastetxeetatik jasotako informazioaren arabera, D eredia izango da nagusi herriko eskoletan.

Herri Eskolan hirurehun ikasletik gora ibiliko dira. D eredian gehienak. Baina badira batzuk ele bitan ikasiko dutenak; Euskal Herri kanpotik etorritako ikasleek, hain zuzen ere. Horiei apurka-apurka erakusten zaie euskaraz. Horrela, bizpahiru urtean euskaraz bizi izateko gauza izateko dira.

Arizmendiko ikastetxeetan, berriz, 3.200 ikasle ibiliko dira aurtentzen. Kasu horretan ere D eredia da nagusi, baina badago ele bitan ikasten duen talderik ere (B eredian, alegia).

Mesedeetako ikastetxeari



UBANE MADERA

Umezaintzan gela berri bat sortu behar izan dute urtebeteko neska-mutikoendako.

dagokionez, apurtxo bat aurreratu, eta oraingo astean hasi dira eskolak ematen, egunean, hain zuzen ere. Han 350 ikasle inguruk ikasiko dute aurtentzen; D eredian gehienak. Dena dela, badira bi taldetxo egokitze prozesuan dabilzanak, ele bitan.

Lanbide Hastapenaren kasuan, hango gazteek ere astelehenerako dute oporren osteko lehenengo hitzordua. 30ek eman

dute aurtentzen izena. Aroztegia eta Mekanika ikasteko aukera izango dute horiek.

Eta, Arrasate-Aretxabaleta Institutuari dagokionez, 460 ikasle eman dute izena Arrasateko zentroan. DBHko eta Batxilergoko ikasketak egingo dituzte horiek. Beste 155 gaztek bestelako zikloetan ikasteko eman dute izena. Horiek ere Arrasateko zentroan ibiliko dira.

UMEZAINZAN GEHIAGO

Bukatzeke, Umezaintzari helduko diogu. Umezaintzan ere hasita daude eskolekin, gurasoak lanean hasita daude eta. Aurtentzen 60 bat umek eman dute izena, eta, iaz bezala, beste gela berri bat zabaldu behar izan dute. Iaz sehaskako umeendako zabaldu zuten gela berria eta aurtentzen, berriz, urtebeteko umeendako zabaldu behar izan dute.

LABUR

Urbanorako bonoa doan, eta Haur Jaia Auto Bariko Egunean

Datorren irailaren 22an Auto Bariko Eguna egingo dute Arrasaten; egun horren helburua da automobila larregi erabiltzeak dituen ondorio txarrak nabarmendu eta jendea horretaz jabetzea.

Hala, egun hori dela-eta, datorren astean, martitzene-tik zapatara arte, herri autobusean bidaia bat doan egiteko aukera izango dute Udalak banatutako bonoa aurkezten duten bidaiariek. Eta zapatuan, hilak 20, Haur Jaia egingo dute Seber Altuben.

Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga

Udalak jakinarazi digu 2003ko jarduera ekonomikoaren gaineko zerga 2003ko urriaren letik azaroaren 11ra ordain daitekeela borondatzeko epean.

Horrelakoetan ohi denez, behin epe hori pasatu eta gero ordaindu barik dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.

Ur hornidura eta zabor bilketaren gaineko zerga

Udalerriko zergadunei jakinarazten zaie 2003ko bigarren hiruhilabeteko ur horniduraren eta zabor bilketaren tasaren ordainagiriak ordaintzeko epea datorren urriaren 15ean bukatuko dela.

Epe hori bukatzean ordaindu barik dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

OSASUNA/ Gripearen aurkako kanpaina

Astelehenean hasiko da gripearen aurkako kanpaina

U.M.

Datorren astelehenean, hilak 15, hasi eta urriaren 31ra arte, gripearen aurkako txertatze kanpaina egingo dute Arrasaten. 65 urtetik gorako guztiei eta gaixotasun kronikoren bat (diabetesa, bihotzekoa...) duten 65 urtetik beherakoei zuzendutako kanpaina da.

Udazkenaren atarian, urtero, gripearri aurre egiteko txertatze kanpaina abiarazten du Osakidetzak. Hala, aurtengo kanpaina astelehenean, hilak 15, abiaraziko dute.

Kanpaina horretan 65 urtetik gorakoek eta gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherako guztiek (diabetesa, edo bihotzekoa, biriketako, giltzurruneko... gaixotasunak dituztenek) har dezakete txertoa. Ez da derri gorrezkoa izaten, baina, bai kome-nigarria. Izan ere, txertoa hartu arren gripea harrapatzen badute ere, gripea samurragoa izango da eta ez dute zailtasunik izango.

LEKUAK ETA ORDUAK

Ahal duenak anbulatoriora jo beharko du txertoa hartzera. Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 17:00ak arteko astia dauka horretarako. Eta lehen esandako moduan, urriaren 31ra arte ibiliko dira txertoak ipintzen.

Edozelan ere, urtero moduan, auzoetan ere izango da txertoa hartzeko aukera; herritarrei txertoa hartzea errazteko.

Irailaren 22tik 26ra bitartean joango dira auzoetara. Irailaren 22an, astelehena, San Andres auzokoen txanda izango da; alkatetzan ipiniko dute txertoa. Irailaren 23an, martitzena, Abaroan izango dira; eguaztenean, berriz, Uribarriko zaharren egoitzaren txanda izango da; eguenean San-



GOIATZ ARANA

Anbulatorioan urriaren 31ra arte emango dute txertoa; zenbait auzotan ere izango dira.

ta Marina auzora joko dute, zaharren egoitzara. Eta egubakoitzean Musakolako zaharren egoitzan izango dira.

Zentro horietara guztietara 12:00etatik 13:00etara joan beharra dago txertoa hartzera.

EZINDUENAKO

Bestalde, etxean dauden ezinduek, nor bere medikuarekin edo erizainarekin harremanetan jarriz gero, etxean har dezakete txertoa.

BOLANTERIK EZ, BAINA TXANDA BAI

Bolanteari dagokionez, 65 urtetik

gorakoek ez dute behar bolanterik; zuzenean joan daitezke txertoa hartzera. 65 urtetik beherakoek, berriz, bolantea hartu beharko dute medikuaren edo erizainaren kontsultan.

Hori bai, kasu bietan alde zuzenetik txanda hartu beharra dago, anbulatoriora deituta.

ABENDUA ETA URTARRILA

Osakidetzak neguari begira antolatuko ohi du gripearri aurre egiteko txertatze kanpaina. Izan ere, abendua eta urtarrila izaten dira gripea errazen hartzeko hil txarrenak.

Zenbait auzotan aldatu egin dira alkateak hauteskundeaz geroztik

Udalbatzaren aldaketaz gain, maiatzeko hauteskundeek beste zenbait aldaketa ere eragin dituzte herrian. Kasu honetan, zenbait auzo alkateren gainean berba egiten gabe. Izan ere, Garagartzako, Uribarri-Erguingo eta erdialdeko auzo alkateek euren postuak utzi zituzten ekainean.

Horren aurrean, uztailean eta irailean izendapen berriak egin dituzte, behin-behinekoak.

GARAGARTZA ETA URIBARRI-ERGUINGO

Udaletik jakinarazi digutenez, oraingo hilean, Garagartzako auzotarrek idatzi bat aurkeztu diote Udalari auzo batzorde berria eratu dutela jakinarazteko. Orain

arteko alkate izan den Jose Mari Etxagibelen orde, garagartzarrek Karmel Uribarren aukeratu dute; eta Iñaki Zabaleta eta Jose Antonio Lopez auzoko batzordeko kide izateko.

Uribarri-Erguingo kasuan, Felix Iturbek kargua utzi zuen. Eta, auzoko jaiak zetozela-eta, Udalak proposatuta Carlos Garate izendatu dute haren ordeko.

ALDE ZAHARREAN ORAINDIK EZ DAGO

Alde zaharri dagokionez, Jose Ignazio Sagasta ibili da ekainean arte alkate moduan. Gero, kargua utzi zuen. Eta, oraindik ez dago haren ordekorik, ez da horretarako beharrik sortu-eta.

GAINERAKOAK

Lehen aipatutako moduan, izendapenak behin-behinekoak dira. Izan ere, erabaki horiek guztiak berretsi egin behar ditu udalbatzarrak osoko bilkuran. Eta, hori egiteke dute.

Era berean, Arrasaten moduan, hauteskunde ostan udalbatzarra aldatzen denean, auzo alkate moduko karguak berrikusi egiten dituzte, eta gehienetan, aldatu, izendapen horiek izendapen politikoak izaten dira-eta. Arrasaten ere hala egingo dute geratzen diren gainerako auzo eta nekazal alkateekin. Baina, oraindik ez dute zehaztu noiz izango den hori.

LABUR

Hondakinen gaineko gaiak landu dituzte Arrasateko eskoletako zenbait irakaslek

Astelehenean hasi eta eguaztenean arte, Arrasateko eskoletako 18 irakaslek ingurumenarekin lotutako gaiak landu dituzte. Hain zuzen, Arizmendiko eta Mesedeetako ikastetxeetako irakasleak ibili dira horretan.

Eskola horiek Eskolako Agenda 21 izeneko ekimenaren barruan daude. Bestek beste, Arrasateko Ingurumen Eskolak bultzatutako proiektua da, urtero, ingurumenarekin lotutako gai bat landuzko. Hala, aurtengo hondakinak izan dituzte berba. Hondakinak zelan murriztu, birziklatu, berriro erabili... Kontua da eskoletan parte hartu duten irakasleek gero ikastetxeetan Agenda 21 izeneko proiektua eta haren edukiak landuko dituztela.

Oro har, Eskolako Agenda 21 proiektuaren helburua da giza-kiaren eta ingurumenaren arteko harremanak hobetzea, eta bizikaltatearen eta ingurumen kalitatearen artean oreka lortzea. Eta hori guztiori hezkuntzaren bitartez bideratzea.

Domekan, Arrasateetik Arantzazura erromesaldian

Joan den martitzenean, hilak 9, Arantzazuko Amaren eguna izan zen. Eta, ohiturak agintzen duen moduan, egun horren osteko aurreneko domekan arrasatearrek hitzordua dute Arantzazuko Amari bisita egiteko. Urtero moduan, automobilerik, autobusez zein oinez igotzeko aukera izango da.

AUTOBUSEZ JOATEKO

Autobusez joan gura dutenek lekua hartu beharko dute. Horretarako, Ecuador Bidaian bulego-etara jo beharko dute. Garibaitik aterako da autobusa, 09:30ean. Era berean, aurtengo autobus zerbitzu berria izango da, oinez joan direnak autobusez buelta daitezzen; 13:30ean eta 18:00etan izango dira autobus horiek.

OINEZ JOAN GURA DUTENENAKO

Bestalde, oinez joan gura duten erromesek goizean goiz jaiki beharko dute ohetik, 06:30ean dute-eta hitzordua Kontzezinon. Handik Bedoñako bide aldera egingo dute, errepidetik; gero Urkuluko urtegira joango dira, Urrexola auzora ondoren, Jaturabeko urtegira gero, eta bukatzeko, handik Gesaltzara. Aurreikuspenen arabera, 10:00ak aldera iritsiko dira ibiltariak Gesaltzara.

Han, Arrasateetik autobusez joan diren gainerako erromesekin elkartuko dira.

GENARO LEKUONAK ESANGO DU MEZA

Gesaltzan frantziskotarrek ongietorria egingo diete. Eta guztiek batera egingo dute Arantzazurako bidea, otoiitzean.

11:00ak aldera iritsiko dira Arantzazuko santutegira. Han, gainerako frantziskotarrekin batera, besteak beste, Arrasateko parroko Jenaro Lekuona izango da. Beste ezer baino lehen, erromesei esker ona emango diete. Eta gero, 12:00etan, meza esango du Jenaro Lekuonak berak.


OINEZ JOAN GURA DUTENENAKO

Urtero moduan, erromesaldian parte hartuko dutenen artean Arrasateko udalbatzarraren ordezkariak ere izango dira. Horren harira, eta udalbatzarraren zinegotzi berriak daudela-eta, haien parte-hartze handiagoa eskatzen dute antolatzaileek. Bestela ere, oro har, erromes ugari parte hartuko dutela espero dute, aurreko aldietan moduan.

Era berean, antolatzaileek gogorarazten dute Arantzazura doazen erromesek domekan bertan bukatzen den V. Mendeurrenaren gaineko erakusketa ikus-terko aukera izango dutela.




Arrasatear ugari parte hartu ohi dute Arantzazurako erromesaldian.



AURTEN ERE LANDAN OSPATU DUTE EXTREMADURA EGUNA

Zapatuan ospatu zuten, hamabigarren urtez, Extremadura Eguna. Ospakizuna Landan egin zuten, eta joan den urtean bezala, aurten ere eguraldiak ez die askorik lagundu. Hala ere, jai giro polita izan zen Landan, eta hara hurbildu ziren guztiak gura beste edari eta janari izan zuten. Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako ehun lagun inguru elkartu ziren, eta egun pasa ederra egin zuten.




MARKEL DURAN ARRASATEARRA 'EUROJUNIOR' SAIOKO PROBETAN

Markel Duran gazte arrasatearrak TVE telebista kateko *EuroJunior* saiorako probak egin zituen martxoan, Donostian. Hainbat proba gainditu eta gero, azkenean ez zuten saio horretan parte hartzeko aukeratu. Gazte arrasatearrak ondo baino hobeto abesten du eta ez dauka amore emateko asmorik. Badaki oraindik ere horrelako telebista saio batean parte hartzeko aukera asko izango dituela.



SENEGALERAINO JOAN BEHAR EUSKALDUNEKIN EZ ELKARTZEKO

Goiena Telebistako lankideak Senegalera joan dira oporretan, eta argazki piloa ekarri dituzte handik. Euskaldunek aspertuta, Afrika beltzean egon dira Iban, Toño eta Miki, baita ederto ibili ere. Oso leku turistikoa da Senegal, baita zikin samarra ere. Hori bai, emakume eta gizon ederrak ei daude han. Oso harreman ona izan dute hango bizilagunekin; argazkia ikusi besterik ez dago.



TURKIARA JOAN GURA DUENAK HOBE DU AZKAR IBILI!

Txapeldunen Ligako lehenengo partidua Turkiako Galatasaray taldearen kontra izango du Realak. Partidua zuzen-zuzenean ikusi gura duzenok hobe duzue azkar ibili, bidaia agentziak Istanbulera joateko bidaia bereziak prestatzen dabilta-eta. Jende askok gura du Reala Txapeldunen Ligan ikusi, eta argi dago bidaia horiek berehala agortuko direla. Horrenbestez, hobe duzue azkar ibili!

2003-2004 DENBORALDIKO PREFERENTE MAILAKO MONDRA FUTBOL TALDEA

Denboraldiari aurre egiteko hogeita bost jokalariz izango ditu Josu Zubiak

Mondrak joan den domekan jokatu zuen Liga Txapelketako lehenengo partidua, eta arrasatearrek 1-2 irabazi zioten Hernaniri

Bihar, zapatua, Mondrak Liga Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu du Zestoaren kontra, Atxabalpen. Arrasatearrek ondo hasi dute Liga, joan den astean Hernaniren kontra 1-2 irabazi zuten eta.

Mondrak Hernanik baino maila politagoa erakutsi zuen, baina ezin esan norgehiagoka irabaztea erraza izan zenik. Hernanik partidua hasi eta hogeita sei segundora egin zuen 1-0koa. Hasteko modu ezin hobea. Arrasatekoek, baina, futboleant jokatzeko hasi eta kontrarioa baino gehiago zirela erakutsi zuten. Horrela, lehen zatia amaitzeko minutu gutxi geratzen zirenean, Jon Muruak Mondraren bi golak egin zituen (43. eta 46. minutuetan).


Mondrak, Hernaniren kontra jokatzeko gainera, epailearen erabakien kontra ere egin behar izan zuen. Ikusi egin beharko da Atxabalpen zelan epaitzen duten.



Josu Zubia
28 urte
Entrenatzailea



Nicasio Galan
Bigarren entrenatzailea



Jose Mari Gonzalez
Delegatua



Mikel Mondragon
20 urte
Atezaina



Mikel Galvo
19 urte
Atezaina



Aitor Pildain
21 urte
Atezaina



Andoni Azpiazu
23 urte
Atzelaria



Argider Arana
25 urte
Atzelaria



Eldin Zivojevic
21 urte
Atzelaria



Kepa Barbarias
23 urte
Atzelaria



Iban Roa
20 urte
Atzelaria



Jon Alkorta
21 urte
Atzelaria



Jon Lasagabaster
23 urte
Atzelaria



Markel Gonzalez
19 urte
Atzelaria



Andres Castillejo
19 urte
Atzelaria



Iker Lazpiur
20 urte
Atzelaria



Ruben Rueda
28 urte
Erdilaria



Arkaitz Garmendia
21 urte
Erdilaria




Jokin Pavo
20 urte
Erdilaria



Ander Bereziartua
24 urte
Erdilaria



Iban Garai
23 urte
Erdilaria



Illart Etxebarria
22 urte
Erdilaria



Mikel Gangóiti
19 urte
Erdilaria



Ekain Garin
23 urte
Aurrelaria



Jon Muruamendiaraz
23 urte
Aurrelaria



Iker Lopez
20 urte
Aurrelaria



Jon Loiti
19 urte
Aurrelaria



Inaxio Larrañaga
23 urte
Aurrelaria

ATLETISMOA

Bihar, Kanpanzar Kobate Harrobia Atletismo Taldea aurkeztuko dute

Ibarreko 34 atleta izango dira talde horretan; tartean, Arrasateko atleta asko

XABIER URZELAI

Bihar, 12:30ean, Kanpanzar Kobate Harrobia Atletismo Taldeko aurkezpena egingo dute Elgoibarren, Argixao futbol zelaian. Taldean Zumarragako eta Legazpiko atletak egongo dira, baita ibarreko atleta asko ere; tartean, Arrasatekoak.

Atletismoko talde berri bat egiteko ideia Oñati aldetik dator. Javier Gomez Aloña Mendiko Atletismo Saileko arduraduna talde berri bat sortzeko lanetan hasi zen, eta hasiera batean 20-25 atletaz osatutako taldea izan behar zuena azkenean 68 laguneko talde bilakatu da.

Taldearen helburua Gipuzkoan egiten diren herri lasterketan talde moduan esku hartzea da, eta, ikusten den moduan, atleta askok begi onez ikusi dute ideia hori. Ibarrean, oraingoz, 34 atletak eman dute izena, baina antolatzaileen esanetan kopuru horrek berehala egingo du gora.

Taldeko kide izateko atletismoa gustuko izatea baino ez da behar. Kanpanzar Harrobia Atle-




Hemendik aurrera ibarreko atletek talde moduan korritzeko aukera izango dute.

tismo Taldeko kide izateko kirol mailak ez dauka inongo garrantzirik, taldean hainbat mailatako atletak daude-eta. Euskal Herri mailan punta-puntan dabilzan atletak daude, Ritxar Fernandez, adibidez, baina badaude probetara parte hartzera bakarrik joaten direnak ere. Arrasate-Oñati lasterketan edo Behobia-Donos-

tia maratoni erdian bakarrik korritu beharrean talde moduan korritzeko aukera eskainiko du bihar aurkeztuko duten taldeak.


Bestalde, Arrasate Atletiko Taldeko atletak eskolekin batera hasiko dute denboraldia. Asteburuan, baina, taldeko hainbat atletak Elgoibarren izango den erakustaldian hartuko dute esku.

FOTOKIROLA



Gimnasia erritmikokoak lanean

Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeko kideak ikasturtea presatzen dabilta. 6 eta 7 urte bitarteko gimnastek atzo hasi zituzten eskolak. Entrenamenduak eguenero izango dituzte Musakolako Kiroldegian. Gainerako atletak non eta noiz entrenatuko diren jakiteko batzarra egingo dute gaur, egubakoitza, 17:00etan, Uarkapen. Batzar horretara joateko aukerarik ez baduzue, jakin ezazue 610 20 50 71 telefonora deituta behar duzuen informazio guztia izango duzuela. /X.U.



Amagara

Erdiko kalea 54, behea. Tel.: 943 79 09 09

MODURU KAJOI 2003

Ederra egongo zara zure beltzaran kolorearekin

Promozio berezia:

9 saio + 3 doan

42 euro bakarrik!!!

Irailaren 12tik urriaren 13ra

Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen araberakoak izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sensibilitatearen araberakoa ere.

ELKARRIZKETA

LARRAITZ KORTABARRIA ETA AINHOA GALLASTEGI/ EIBAR FUTBOL TALDEAN JOKATZEN DUTEN ARRASATEARRAK

"Eibarren argi dute zein den aurtengo helburua: Super Ligara igotzea"

XABIER URZELAI

Ainhoa Gallastegik eta Larraitz Kortabariak Eibar futbol taldean jokatuko dute aurtan. Ainhoak 25 urte ditu, eta 11 urte egin ditu Mondran. Larraitz gazteagoa da, 17 urte ditu, eta 3 urte egin ditu Mondran. Ekainean Athleticen eskaintza polita egin zion Larraitzi: Lezaman jokatu, astean zehar talde zuri-gorriaren egoitzan bizi, han ikasi... Azken momentuan, baina, atzera egin zuten, eta Eibarrek fitxatu du.

Larraitz, ekaineko disgustua gaindituta?

Bai, ez dago beste erremedioirik. Egia esatearren, kolpe handia izan zen. Athleticen probak egin nituen, eta lagun arteko partidua bat jokatu nuen eurekin. Lezaman geratuko nintzela esan zidaten eta hango egoitzan biziko nintzela. Ikastetxe baten bila eta guzti hasi nintzen, eta azken momentuan aurrekontua zela eta ez ninduten fitxatu. Gogorra izan zen.

Horrelako kontuek futboleant jokatzen jarraitzeko gogoa kentzen diote bati, ala?

Bai, hasieran bai. Hala ere, aurrera egitea besterik ez dago. Orain, baina, lehen besteko gogo daukat futboleant egiteko. Horrez gain, etxean nago eta betiko lagunekin ikasten dut; hortaz, ondo.

Eibar taldean jokatuko duzue aurtan. Zer moduz?

Ainhoa: Oraingoan, ondo. Taldean giro polita dago, eta kalitate handiko jokariak daudela igartzen da. Seriotasun handiarekin egiten da lan.


Orain arte Mondran ibilire zarete. Alde handia dago?

Larraitz: Bai. Kontua da emakumeetan hiru maila baino ez daudela eta maila batetik bestera alde handia dagoela. Mondra territorial mailan dago, Eibar nazional mailan, eta ondoren Super Liga delakoa dago. Eibarren igarri dudana da jokaldiak taktikoki gehiago lantzen direla.

Ainhoa: Horrez gain, orain arte jokatu ditugun lagun arteko partiduetan ikusle asko izan dira, eta Atxabalpen ez da horrelakorik gertatzen. Era berean, Eibarren baliabide ekonomiko handiagoak dituzte.

Zer dauka Eibarrek kirol arlo gehientsuenetan maila oneko taldeak izateko?

Ainhoa: Hasteko, instalazio aldetik beste edozein herri baino aurreratuago daude. Adibide moduan, Arrasaten, Atxabalpen bakarrik egin daiteke futboleant, kiroldegiko futbol zelaietan ezin



XABIER URZELAI

"Gustura gaude Eibarren. Taldean giro polita dago eta seriotasunez egiten dute lan"

daiteke eta futboleant egin.

Larraitz: Horrez gain, esango nuke gazte-gaztetatik kirola egiteko erraztasun handiagoa dute, baina joera handiagoa ere. Gaztetan, multikirolean zabilzanean, badakizu edozein kirol eginda ere Eibarrek talde ona izango duela.

"Ez dut uste emakumeen kirola edertasunean oinarritu behar denik"

Asteburuan hasiko duzue Liga Txapelketa. Hasteko irrikak?

Ainhoa: Liga Txapelketa hasteko baino gehiago, aurrendenboraldia amaitzeko irrikan gaude. Orain arte astean lau entrenamendu egin ditugu, astelehenean eguenera arte, eta lan eta entre-

"Frankfurten Euskal Herri osoan baino emakume gehiagok egiten dute futboleant"

natu baino ez dugu egiten. Datoren astetik aurrera hiru entrenamendu egingo ditugu, eta lasaiago ibiliko gara.

Zeinen kontra daukazue domekako partidua?

Ainhoa: Bizkaiko talde baten kontra neurtuko ditugu indarrak, Algotako Bizkarre taldearen

kontra, hain zuzen ere. Lehen, talde sendoa zen, baina orain jokari gazte asko dituztela uste dut, eta ikusi egin beharko da.

Zuen multzoan nongo taldeak daude?

Larraitz: Estatuko nazional mailan sei multzo daude, eta gure multzoan hamalau talde izango dira: Gipuzkoako lau talde, Nafarroako beste lau talde, Zaragozako bi talde, Arabako bi talde eta Bizkaiko beste bi talde.

Orokorrean, ze ezberdintasun daude nesken eta mutilen arteko futboleant?

Larraitz: Argi dago fisikoki ezberdinak gairela eta emakumeek ez dutela gizonek besteko abiadura eta indar. Zailagoa da pase luzeak ikustea, baina teknikoki emakumeek ere oso maila ona dute, eta jokaldi politak ikusten dira.

Ainhoa: Horrez gain, mutil batek ikusten badu ongi jokatzen duela, pentsa lezake agian futboretik bizi daitekeela. Emakumeetan ez da holakorik gertatzen.

Gizonezkoen futboleant berdintasun handia dago, eta mundialetan argi geratzen da hori. Emakumeetan, berriz, alde handia dago.

Ainhoa: Bai, eta Athleticen eta Frankfurten arteko partidua da horren adibide argia. Athleticen sekulako maila erakutsi zuen Super Ligan, eta Frankfurten kontra 1-8 galdu zuen. Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako futbolariekin alderatuta, oraindik asko daukagu hobetzeko.

Larraitz: Datu esanguratsu bat: Frankfurten Euskal Herri osoan baino emakume gehiago daude futboleant jokatzen. Horrekin guztia dago esanda. Egia da, baina, poliki-poliki aurrera goazela, eta Euskal Herriko talde batzuk hasi direla emakumeen futbola bultzatzen.

Emakumeetan, baina, kirol maila baino gehiago edertasuna saritzen da askotan. Gizonezkoetan kasu bakarra dago: David Beckham.

Larraitz: Bai, argi dago kirol askotan kirol maila baino gehiago kirolariaren edertasuna hartzen dela kontuan. Edonola ere, Ameriketako Estatu Batuetan emakumeen futbola seriotasun handiarekin hartzen dute, eta han benetako izarrak daude. Publizitate kanpainak egiten dituzte Michael Jordan eta horrelako kirolariarekin batera, eta kirol maila hartzen dute kontuan.

Ainhoa: Ez dut uste emakumeen kirola errentagarria izateko edertasunean oinarritu behar denik; horrek ez digu batere onik egiten.

ELKARRIZKETA

KIRMEN URIBE/IDAZLEA

“Gure ikuskizunari agur esango diogu Arrasateko gaztetxean”

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, Kirmen Uribe idazleak literaturara ikuskizuna eskainiko du gaztetxean. Horren aurretik, Manex Agirrek eta Eneko Barberenak errezitaldia egingo dute.

Kirmen, zutabegile, poema idazle, gidoilari... zaitugu. Zertan ibiltzen zara gusturago?

Gustukoen dudana poemak idaztea da. Bestalde, egunkarietako zutabeak ere gustura idazten ditut. Xarma berezia dute: duten neurria, ia bat-batean idaztea... Iritziak eman beharrean, errealitatearen erretratuak egiten ditut. Horrez gain, *Sautrela* saiorako gidoiak egin ditut.

Umea nintzenetik idazten ditut poemak. Izan ere, poesia irakurtzen oso goiz hasi nintzen. Diru gutxiago irabazi arren, gurago dut literaturan ibili.

Bitartean heldu eskutik poema liburuak harrera ona

izan du?

Bai, oso pozik nago. Dagoeneko liburuaren hiru argitaraldi saldu ditugu. Horrez gain, liburu gaztelaniara eta ingelesera itzultzen ari dira. Poztekoa da. Nire lehenengo poema liburu da eta harrera ona izan du. Orain, poliki-poliki poema gehiago idazten nabil, baina lasai hartu gura dut.

Liburu hori aurkezteko ikuskizuna prestatuta daukazu. Noiz hasi zinen horrekin eta zertan datza?

Ikuskizunak urte eta erdi dauka. Izan ere, uste dut Arrasateko ekitaldian ikuskizun horri agur esango diogula. Oso gauza intimoa eta aberasgarria izan da. Nik poemak errezitatzen ditut, Txomin Uribek gitarra elektrikoa jotzen du eta Josu Aranbarrik paperean margoitzen du. Horren aurretik, *Bar Puerto* ikuskizunean hartu nuen parte, eta gauza txikiagoa egin gura nuen, erdi-inprobisatutakoa.

Euskal Herrian ezagun

egin zara, baina atzerrian ere zelanbaiteko ospea hartu duzu. Konta egiguzu...

Martxoan, Mikel Urdangarin eta biok New Yorken izan ginen errezitaldiak egiten. Oso ondo hartu gintuzten, eta AEBetako zenbait aldizkaritan –besteak beste, *The New Yorker* ospetsuan– nire poemak argitaratu dituzte. Horrez gain, AEBetan *Bitartean...* liburu itzultzen ari dira.

Egin izan duzu ekitaldirik Arrasaten, ezta?

Lehen, parranda egitera joaten nintzen. Bestela, azken urtetan birritan izan naiz: bata, *Bar Puerto* ikuskizunarekin eta beste bat, Monterongo literatura solasaldietan. *Bitartean heldu eskutik* ikuskizunari Arrasaten agur esatea ideia aproposa da.

Zein asmo dituzu orain?

Batez ere, idazten jarraitzeko asmoa daukat. Joan den astean Eslovenian izan nintzen, munduko idazleen kongresu baten, eta errezitatu egin nuen.



ARRASATE PRESS

<p>ARMAZOIA+ KRISTALA NAGUSIENTZAT</p> <p>50€ tik aurrera</p> <p>eta kristal progresiboekin</p> <p>150€ tik aurrera</p> <p><small>Eskaintza baltzarre lente zuriendako *6 esfera *2 zilindro</small></p>	<p>MULTIOPTICAS -en</p> <p>ARMAZOIA+ KRISTALA* UMEENTZAT</p> <p>55€ gatik bakarrik</p> <p><small>* Kristal sendo organikoak Lente zuriendako *6 esfera *2 zilindro</small></p>	<p><i>bonardi</i> haizea ARMAZOIAK</p> <p>49€ gatik bakarrik</p>	<p>Multi- Eskaintzak</p> <p><i>bonardi</i> ARMAZOIAK</p> <p>32€ gatik bakarrik</p>
--	--	---	---



J. Carlos Guerra • Tel. 943 79 29 25 • ARRASATE

ELKARRIZKETA

JUANMA VAZQUEZ/MARGOLARIA

“Umetako lagunek egiten nituen marrazkiengatik gogoratzen naute”

IKER BARANDIARAN

Juanma Vazquezek txiki-
txikitatik margotzen du.
Erretratu eta paisaia mor-
doa egiteaz gain, hainbat
taberna apaindu ditu, eta aspal-
dian tatuajeak egiten ere badihar-
du. Egunotan San Andresko
Whiskerya apaintzen dabil.

Noiztik marrazten duzu, oso txikitatik?

Bi edo hiru urte nituenean, umezaintzan nenbilenean, hasi nintzen marrazten. Sasoi hartan marrazten nabarmendu nintzen. Izan ere, nire belaunaldiko lagun askok, urtetan ikusi ez nauten arren, marrazkiekin lotzen nauten, erreferentzia hori dute.

Gaztetxotan zer marrazten zenuen?

Denetatik. Gura nuena, eskatzen zidatena, edozer. Edozelan ere, gogoan daukat heavy musikarekin zaletu nintzela, eta Iron Maiden eta halako taldeen marrazki mordoa egiten nituen. Gaur egun ere denetatik marraztu eta margotzen dut: abstraktua, errealista, espresionista, inpresionista...

Zure kasa ikasi duzu ala ikastaroren bat jaso duzu?

Gaztetxotan Santanderrera bizi izatera joan nintzen eta han, eskolatik kanpo, asteburuetan, olio eskolak jaso nituen. Geroago, Leioan Arte Ederreko bi ikasurte egin nituen. Han asko ikasi nuen, eta oso gustura ibili nintzen. Erronka handiak ipini zizkiguten, gu geu gauza mordoa egiteko gai ginela ikus genezan. Hala ere, erakutsi didatena baino garrantzitsuagoa da nik neuk lanak eginez ikasi dudana. Egunero-egunero marrazten dut. Eta marrazten ez badut, ideiak ateratzen ibiltzen naiz.

Zure ametsa horretaz, marrazteaz, bizi izatea da?

Aspaldidanik nire ametsa tatuatzailea izatea da, tatuajeak egiten bizi ahal izatea, eta dagoeneko horretan hasia naiz.

Zein teknika ikasi dituzu? Eta zein duzu gustukoena?

Gehienak, baina gehienbat olioarekin margotu dut, hori atsegin dut gehien. Hala ere, edoze-
rekin margotzen dut; klarion batekin edo ikatz zati batekin gauza asko egin ditzaket. Besteak beste, komikiaren estiloko marrazkiak egiten ditut. Ikasteko garrantzitsuena da naturari eta errealtateari begiratzea eta horretan oinarritzea.

Erakusketarik jarri duzu?

Ez dut inoiz banakako erakusketarik ipini. Eskolan nenbilela, talde-erakusketaren bat ipini genuen. Erakusketarik ipini ez



IKER BARANDIARAN

*“Batez ere,
marraztuz eta
margotuz ikasi dut.
Egunero-egunero
marrazten dut”*

izanaren arrazoia da mota guztietako lanak egin ditudala, eta lan gehienak enkarguzkoak izan direla.

Zein motatako enkarguak egin dituzu?

Mota askotakoak: erretratuak, paisaiak... Esate baterako, orain dela gutxi hiru umeren erretratu eta neska baten erretratu eskatu dizkidate. Arkatzarekin egingo ditut.

Zein motibo duzu gustukoena?

Gustukoena ditudanak motibo ilunak dira: burezurak eta

*“Gustukoena
ditudanak motibo
ilunak dira:
burezurrak eta
antzeko gauzak”*

halako gauzak. Izan ere, txikia nintzenetik halako irudiek piztu didate irudimena. Modu berean, marrazki horiek tatuajeak egiteko aproposak dira.

Eskolak eman izan dituzu, ezta?

Bai, orain dela urte batzuk oinarritzko marrazkigintzako ikastaro xumea eman nuen gaztetxean. Ikastaroak denbora laburra iraun zuen, baina ikasleek dezente aurreratu zuten. Gustura emango nuke beste ikastaroren bat, baina ez dut beste aukerarik izan.

*“Enkarguez gain,
tabernak apaindu
ditut, eta orain
tatuaje estudioa
jarri dut”*

Zein lan mota egin dituzu orain arte?

Aurretik aipatutako enkarguez gainera, Etxoste taberna guztia mota askotariko marrazkiekin apaindu nuen, ospitale zaharreko gaztetxean hainbat marrazki egin nituen... Egunotan, Whiskerya apaintzen nabil, eta Oñatiko aroztegi baten aurreko aldea apaintzeko eskatu didate.

Horrez guztiaz gainera, duela urtebete tatuajeak egiten hasi nintzen, eta estudioa jarri dut. Gero eta jende gehiagok deitzen dit lanak eta tatuajeak egiteko.

KULTURAPILULAK



‘Arrasate Mondragon Irudiak’ aurkeztu dute

Martitzenean, Arrasate Argitan kultura elkarteak *Arrasate Mondragon Irudiak* izeneko liburua aurkeztu zuen. Ekitaldia Monterongo erakusketan aretoan egin zuten, eta hainbat herritarrek hartu zuten parte. Egileek lanaren nondik norakoak azaldu zituzten. Besteak beste, Joxe Felix Diaz de Tuestak, Juan Luis Azkaratek eta Joxe Aranzabalek egin zuten berba.

Arrasate Argitan kultura elkarteak liburu txukuna argitaratu du. Batez ere, argazkiez osatuta dago, eta irudien bidez gure herria kanpoan ezagutzera ematea du helburu. Hala, argazkien bidez Arrasateko arkitektura, lana, jendea, jaiak, natura, eta abar erakutsi dituzte. Argazki gehienak 2002 eta 2003. urte bitartekoak dira.

DAGOENKO SALGAI

Arrasate Argitan arrasatearrez osatuta dago. Hainbat argazkilari, kazetari eta idazlek sortu dute. Liburua gehienbat argazkietan oinarrituta dagoen arren, idatzi esanguratsua ere baditu. Besteak beste, Joxe Aranzabalek, Koldo Izagirrek, Antonio Alvarez-Solisek, Eduardo Manetek eta Selma Huxleyek idatzi dute. Argazki oinak, berriz, Juan Luis Azkaratek egin ditu.

Horrez gain, esan beharra dago liburuko idatzi guztiak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez daudela.

Liburua dagoeneko salgai dago herriko liburu dendetan, 35 eurotan. Era berean, egileek aditzera eman zuten aurrerantzean beste proiektu batzuk egingo dituztela.

Sole N’Kulu-Bulaite Band-ek kontzertua egingo du Jai-Zalen

Datorren egubakoitzean, irailaren 19an, Sole N’Kulu-Bulaite Band-ek kontzertua egingo du Jai-Zale tabernan. Kontzertua goiz hasiko da, 19:30ean, eta doan izango da.

Sole N’Kulu-Bulaite Band taldeak musika latindarra eta saltseroa egiten du. Hain zuzen ere, Sole arrasatearrak eta Ruben eta Iker bergararrak osatzen dute taldea.

E, TXO!

GUREGAIK / GAZTETXEAN LIBURUTEGIA IPINI DUTE

Gazteen artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko ekimena

IKER BARANDIARAN


AGAKOK, herriko gazteen batzarrak, liburutegia ipini du gaztetxean. Hainbat lagunek eramandako materialarekin eta AGAKOK erositakoekin apalak betetzen hasi dira Uarkapeko gazteen gunean.

Liburuak, aldizkariak, bideoak edo jokoak botatzeko badituzu, eraman itzazu gaztetxera!

Udako oporren bueltan, herriko gazteek liburutegia ipini dute gaztetxean. Taberna gainean dagoen solairuan gela bat atondu dute eta poliki-poliki liburu, aldizkari, bideo eta jokoekin hornitzen dabilta. AGAKOK erositako liburu eta aldizkariak gainera, zenbait lagunek etxean zuten materiala gaztetxera eraman dute. Gaztetxea zabalik dagoen artean (arratsaldero), gura

duenak gaztetxeko tabernan liburutegiko giltza eskatu eta hara jo dezake.

LIBURUTEGIAN EDO ETXEAN IRAKURRI Liburutegian mahai handi bat eta aulkiak ipini dituzte. Hantxe irakurri edo liburuak edo beste-lakoak etxera eraman daitezke.



AGAKO

Laster gaztetxeko liburutegiko apalak beteta egongo dira.

Hala gura izanez gero, izena eta eguna apuntatu behar dira. Gura duenak etxean dauzkan

liburu, aldizkari, fantzine, bideo eta jokoak liburutegira eraman ditzake. Eskertuko diote.

UDALEKUETAN GALDUTAKO GAUZAK, TXATXILIPURDIN

Txatxilipurdi elkarteak aditzera eman du umeek eta gazteek uztaileko udalekuetan -bai Arrasaten, Beintzan, Bidarrain eta Orion- galdutako material guztia (arropak eta bestelako gauza batzuk) batu dutela eta Txatxilipurdiko bulegoan dutela. Hortaz, inork udalekuetan zerbait galdu bazuen, jo dezala Pablo Urangako egoitzara. Baliteke galdu duen hori han aurkitzea!

JOSTAILUEN ETA MOZORROEN BILKETA

Txatxilipurdik honako deialdia egin du: herriko gurasoek etxean erabiltzen edo behar ez dituzten umeen jostailuak, mozo-roak edo bestelakoak badituzte, jo dezatela Okendoko edo Santa Marinako ludoteketara. Gurasoek eramandakoak gustura hartuko dituzte ludoteketako begiraleek.

LUDOTEKEN ETA GAZTE TXOKOEN ORDUTEGIA

Txatxilipurdik kudeatzen dituen ludotekak -Oken-dokoa eta Santa Marina-koa- irailaren 15ean zabalduko dituzte, 17:00etatik 20:00ak bitartean. Han apuntatu gura duenak jo dezala bertara.

Bestalde, herriko hiru gazte txokoak -San Andreskoa, Musakolakoa eta Erguingoa- irailaren 17an zabalduko dituzte, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

TXATXILIPURDIKO HAUR SAILAREN ARDURADUNA

Itziar Bartolomek, Txatxilipurdi elkarteko orain arteko Haur Sailaren arduradunak, elkarteko lana utzi berri du. Horren ondorioz, aste honetan Elena Herrarte arrasatearrak ordezkatu du. Zorte on, Itzi! Eta ongi etorri, Elena!

LOTSABARIK / Ixone Serrano

"Mutil-lagun txikirik ez nuke gura"

IKER BARANDIARAN

Ixone Serrano uztailean ezagutu genuen, udalekuetan begirale lanetan zebilela. Dantza egitea oso gustuko duen arren, beste lanbideren bat aurkitu beharra dauka, baina umorerik ez zaio falta.

• Txikitari zer izan gura zenuen?

Ile-apaintzaile edo dantzari. Gogoan daukat etxean erratza mikrofono moduan erabili eta dantza egiten nuela. Zoritzarrez, gaizki abesten dut. Gustuko dut dantza egitea, eta egin dut ikastaroren bat edo beste.

• Zelan ikusten duzu zeure

burua hemendik 20 urtera?

Euskal Herrian bizi izango naizela uste dut, bikotekidearekin, baina ez dakit Arrasaten bizi izango naizen. Neure burua hiru umerekin ikusten dut.

• Zein da, zeure iritziz, adin ideala?

Ez dakit zer esan. 20 urterekin gustura nago. Hala ere, 30 urte ere adin ideala dela uste dut, ordurako bizitza zelanbait bideratuta izan dezakedalako.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Ondo pasatzeari eta atsegin ditudan gauzak egiteari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Ikasketei zer jarraipen eman

behar diegan. Arlo horretan erabakiak hartu beharra daukat.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Tontakeria handienek lotsatzen naute, eta gorri-gorri jartzen naiz. Beste batzuk lotsatzen dituzten gauzek, berriz, ez didate eragiten.

• Zure alde onen bat? Eta alde txarren bat?

Alaia naiz eta lagunei laguntzen diet, baina esaten dute burugorria naizela.

• Zure gorputzeko atal gustukoena?

Eskuak eta besoak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Batez ere, txikia ez izateari. Ez dut mutil-lagun txikirik gura.



ADINA: 20 urte • IKASKETAK: Publizitatea eta Harreman Publikoak • ZALETASUNAK: Dantza egitea eta filmak ikustea
LIBURU BAT: '1984' • FILM BAT: 'Barrio' • MUSIKA TALDEA: Ojos de Brujo eta Orishas • KIROL TALDEA: Reala

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



TAI CHI ESKOLAK

Antzinako ariketa txinatarrak, gorputza eta burua erlaxatzeko.

Hasiera: irailean.
Informazioa eta izenematea 679 642 491 telefonoan.
Lekua: San Viator ikastetxean.
Ikastaro egunak: martitzenetan eta eguenetan, 20:30etik 21:30era.

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

BEHEKODENDATIK

Montxo Blanco

ARRASATE ELEKTRIZIDADEKUE

XABIER URZELAI

Montxo bilbotarra da, baiñe oin dala hamar urte etorri zan Mondraguera. Bilbo eta Mondrague artien aukeratu biher, eta hamen konpetentzia txikixague euenez, hona etorri zan, andrien herrira. Ume artien harrapau dogu Montxo, alabak dendan euzen-eta. Ez dakit zerek emungo dutzon lan haundixen.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Hiru urtekin entxufe bat apurtu neuen; hortan, txiki-txikittatik argi neuken elektrizista izen gure neuela.

Drogak legalizauko zeuke?

Droga bigunak bai, eta gogorak... ez dakit ba.

Eta prostituziñue?

Hori bai.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

El jorobado de Notre Dam / Liburue? Elektrizidadien manuala / La Mandragora.

Nora juengo zitzake gustora?

Oin? Punta Canara.

Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?

Musika ekipo ona, andrie eta umiek.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Fregetie.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Ez, ez naz oso juergazalie. Bilboko Aste Nagusixe.

Bizio bat?

Tabakue.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Ardurie eukittie.

Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeinekin?

Ez neuke holakorik egingo.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Autonomuen eskubidiek hobeketako, lotsagarrixen da-eta.

Denpora librien ze egitten dozu?

Musikie entzun, gitarrie jo, golfien egin...

Golfa aberatsen kirola ei da.



"Musikie asko gustetan jat, eta gitarrie joten dot. Kontzerturen bat edo beste eman izen dot"

Hori jentiek jakin barik berba egitten dauelako da. Golfien egittie ez da garestixe, kirol askoz be garestixaguek egitten ditte jentiek. Golf makilla bat eskopeta bat baiño dezente merkiague da.

Pertsona baten, zertan fije-tan zara lehenengo?

Berba egitten dabillenien nora begiketean dauen.

Janari eta edari gustokue-nak?

Jateko, legatz-kokotie; edateko, barriz, arda on bat.

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Pakien bizi garela.

Oporretatik bueltie gogorra izen da?

"Elektrizidadiari ez jako beldurrik euki biher, baiñe bai errespetue. Lanien kontuz ibilli biher da"

Suerte apur batekin datorren hillien hartuko dittugu oporrak.

Abuztuen, New Yorken elektrizistaren bat edo beste lanpetute ibilli da.

(Barriek). Baietz esango neuke, eta bat baiño gehixago, gaiñera. Poztu egin nitzen, harruegixek die-eta.

Zela da posible hori pasetie?

Elektrizidadie Kanadatik hartzen daue, eta gaiñera uste dot instalaziñuek zahartute dauzela. Sobrekargaren bat-edo eukiko euen... Hamen be pasau leike hori.

Hortan, esan geike elektrizidadie dala munduen motorra.

Bai, eta daukogun artien ez gara kontureketan.

NIREBIDAIAHURA/ Jon Ajuria

Norvegiara / 2002ko abuztutik 2003ko ekainera arte

Norvegiako iparraldea eta Suedia bisitatzen utzi genuen Jon joan den astean, Tromso-n, hain zuzen ere. Arrasateko lagun baten etxean hainbat egun egin zituen, eta han, Norvegiako iparraldean, aurora boreala ikusi zuen lehenengoz. Laguna agurtu, eta bidaiarekin jarraitu zuen Jonek. Iparraldeko beste herri batzuetan egon zen, eta herri batetik besterako bidean, ordura arte ikusitako aurora boreal ikusgarriena ikusi zuen. Lastima trenean zihoala. Hamabost eguneko bidaiari Norvegiako negua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen Jonek.


Oporraldia amaituta, lanean hasi behar izan zuen Jonek, laborategian. Egun gutxira, baina, neskalaguna joan zitzaion bisitan. Olaiak hiru aste egin zituen Norvegian. Martxo amaieran joan zen hara, eta ordurako, neguko hotzak pasatuta zeuden. Eguraldiak lagunduta, bikoteak hainbat bidaiari egiteko aukera izan zuen: Sognefjord-eko fiordoak bisitatzera. Sotra uhartera... Sognefjord-eko fiordoraino joateko, tren, itsasontzia eta autobusa hartu behar izan zituzten, baina azkenean iritsi ziren: "200 kilometro luze dituen fiordoa da eta urpean mila metro baino gehiagoko sakonera dauka. Sekulako parajeak daude han". Bidaiari horrez gain, bizikleta gainean ere hainbat kilometro egin zituzten: Stavanger herrira, Preikestolen-era...

Hiru aste horiek egin eta gero, Jon buru-belarri hasi zen lanean. Norvegia ezagutzera joateaz gain, Kimikako azken urtea egitera ere joan zen hara, eta proiektuaren aurkezpena gain-gainean zuen. Laborategian egindako lanaren gainean ere hainbat anekdota daude kontatzeko, baina beste baterako utziko dugu, badaezpada ere.

XABIER URZELAI



Norvegiako laku asko izoztu egiten dira neguan.



"Trenean nindoala ikusi nuen aurora boreal handiena"

"Norwegian, hegoaldea eta iparraldea oso ezberdinak dira"

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiari kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



AFAGIko boluntarioek gaixoei laguntasuna eskainiko diete eta, bide batez, senideei etenaldia hartzen lagunduko diete.

AFAGIko alzheimerre duten gaixoei laguntzeko programa jarri du abian

IKER BARANDIARAN

A FAGIko, alzheimerre duten Gipuzkoako gaixoen senitartekoen elkarteak, boluntario programa jarri du abian. Gure ibarrean gaixo asko daude eta boluntarioen premia handia dago.

Alzheimerre buru-gaixotasuna da, gaixoaren nortasunaren eta funtzio intelektualaren galera gero eta handiagoa eragiten duena. Gaitz hori pixkanaka garatzen da eta jatorri ezezaguna dauka. Orain arte ez dute sendabiderik aurkitu. 65 urtetik gorako biztanleen %6k eta 80 urtetik gorako biztanleen % 20k daukate gaixotasun hori. Gipuzkoan, hain zuzen, 5.000 eta 6.000 lagun arteko multzoak dauka alzheimerre.

FAMILIEI LAGUNTZA ETA BABESA EMAN AFAGI elkartearen helburu nagusiak honako hauek dira: alzheimerrearen gaineko informazioa zabaltzea; adinduei badaezpada ahalik eta lasterren diagnostikoa egitea; eta gaixotasun horren gaineko ikerketa bultzatzea, bes-

teak beste.

AFAGIko, alzheimerrearen gainean dagoen ezjakintasuna eta familiarterkoek duten laguntza premia ikusita, boluntario programa jarri du abian.

Boluntarioa lagundu egin gura duen eta ezeren truke denboraren zati bat eskaintzeko prest

Boluntario izateko, nora jo?

AFAGIko gizarte laguntzaile Estibalitz Penederen esanetan, ibarrean boluntarioen premia handia dago. Haren esanetan, egia da Aita Menniren eguneko zentroak arazoa leundu egin duela, baina oraindik bada boluntarioen premia.

Interesatuok dei ezazue 943 29 71 18 telefonora (Estibalitz), 16:30etik 19:30era.

dagoen pertsona da. Arduratsua, atsegina eta komunikatiboa izan beharko du. Horrez gain, pazientzia eduki beharko du eta ikusi eta entzundakoa isilpean eduki beharko du. Egin beharreko gastuak (garraioa...) elkarteak ordainduko dizkio.

PROGRAMAREN NONDIK NORAKOAK

AFAGIko arduradunek boluntario izan gura dutenei elkarrizketa egingo diete, eta lagun horiek dituzten gaitasun edo interesen arabera lan esparrua bete beharko dute. Gaixoei laguntasuna eskainiko dietenek, esaterako, astean bi edo lau ordu bete beharko dituzte. Azken baten, helburua da gaixoen senitartekoei atsedenaldira ematea.

Boluntarioei Donostian emango diete heziketa, eta, batez ere, honako azalpenak emango dizkiete: zer den AFAGI, alzheimerrearen gaineko ezagutza, eta gaixoak zelan tratatu.

AFAGIko gizarte laguntzaileak jarraipena egingo dio boluntarioen lanari, senideekin eta boluntarioekin harremanetan.

LABUR

Gripearen aurkako txertoak jarriko dituzte herriko erretiratuen elkarteetan

Irailaren 22tik 26ra gripearen aurkako txertoak jarriko dizkiete 65 urtetik gorakoei. Gazteagoak direnek baina gaixotasun kronikoak dituztenek ere jarri ahal izango dute txertoa, 12:00etatik 13:00etara. 22an, San Andresko alkatetzan; 23an, Abaroan; 24an, Uribarrin; 25ean, Toki Argin; eta 26an, Musakolako elkarteetan.

Irailean hainbat berbaldi interesgarri antolatu dituzte Toki Argi elkarteetan

Santa Marinako Toki Argi elkarteak iraila indarrez hasi gura izan dute. Ikasturtea hasteko hainbat berbaldi antolatu dituzte. Besteak beste, martitzenean, irailaren 16an, jabego horizontalaren gainean egingo dute berba; besteak beste, etxebizitzaren eta auzo-komunitatearen gainean. Irailaren 26an, berriz, zorientasuna izango dute berbagai. Bi berbaldiok 17:00etan izango dira.

Astelehenean hasiko dira Abaroa elkarteak ikasturterako antolatu dituen ikastaroak

Abaroa elkarteak berehala hasiko ditu ikasturte honetako ikastaroak. Astelehenean, irailaren 15ean, hasiko dira gimnasia, margo eta brodatu eskolak. Bestalde, oraingo ikasturtean areto dantza jarri gura dute abian. Ikastaroetan parte hartzeko interesa dutenek lehenbailehen eman beharko dute izena. Abaroako bulego orduak, astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara dira.



Juan Periko Azkoaga, gure oroimenean

Joan den egunean, irailaren 4an, Juan Periko Azkoaga hil egin zen, 92 urte zituela. Familiarterkoekin Donostian zegoela gaixotu eta hil egin zen. Juan Periko Azkoaga aldizkari honen kolaboratzailea zen; behin baino gehiagotan harengana jotzen genuen iraganeko kontuen testigantza jasotzeko. Abaroako sortzaile izan zen, eta hark jarri zion izena elkarteari. /I.B.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
20 €tik aurrera

ZATOZI!

Maalako Errabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31



ARRASATE
Aritz Mauri
Irailaren 14an, 15 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Oihana Gonzalez
Irailaren 16an, 9 urte. Zorionak! Gurasoak, aita eta amama eta osaba-izebak.



ARRASATE
Haritz Zabala
Irailaren 14an, 19 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Janire Ruiz de Azua
Irailaren 16an, 12 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Maitane Muñoz
Irailaren 7an, 19 urte. Zorionak! Etxekoak eta Arrasate Irratiko lagunak.



ARRASATE
Izar Egurrola
Irailaren 8an, 20 urte. Zorionak! Etxekoen eta laguneren partetik.



ARAMAIO
Goiatz Burgi
Irailaren 14an, 13 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Euxebio Iñarra
Irailaren 17an, urtebetetzea. Zorionak, bekario kuttuna! Goienakoak.



ARRASATE
Alex Azkarate
Irailaren 8an, urtebetetzea. Zorionak! Goienako lankideen partetik.



ARRASATE
Maia Iribecampos
Irailaren 10ean, 8 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Nerea Uriarte
Irailaren 15ean, 15 urte. Zorionak! Gurasoen eta familiaren partetik.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:

Arrasate:

ARRASATE PRESS

Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSEn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Jesusi Etxebarria

MUSIKA ESKOLA

2003-2004 IKASTURTEKO
MATRIKULA EPEA ZABALIK: 8tik 30era

- SOLFEOA, ABESBATZA, PIANO, AKORDEOIA, FLAUTA, TXISTUA ETA GITARRA KLASIKOA, ELEKTRIKOA ETA BAXUA (modalitate guztietan - klasikoa, rock-a, blues-a, modernoa, etab), solfeo edo zifraz.
- 5 urtetik aurrerako umeentzat eta helduentzat.
- **Izena emateko:** 17:00-21:00, akademian astelehenetik egubakoitzera edo telefonoz.

Iturriotz 32, etxabea. Tel.: 943 79 17 67 / 652 71 38 28

Orduetgia:
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferreries 35 - 943 77 13 78

ileapaindegia
peluqueria

GORKA

Lilura

OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa.
Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zein baserri-auzotan dago argazkian agertzen den gurutzea?
Arrastoa: sasoi baten, auzo hori Aretxabaletako udalerrikoa zen.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Crema Tropical Gullon galletak
800 g-ko kaxa

1,29 € 215 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MERCHE ETXEBARRIA erandako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Merche!
Galderen erantzun zuzena:
Tresna zorrotzailea.

ARRASATEKO HISTORIA

Artazubiagako Bañeztarren gaineko antzinako kontuak (I)

JON ANDER RAMOS

Arrasateko historiaren aurreneko urteetan Bañez abizen handia zen.

Guerrak eta Garibaik jasotako datuen arabera, dokumentu idatzietan agertzen den lehenengo Bañeztarra Artazubiagako Martin Yañez da. Erregearen eskribau moduan dokumentu bat sinatu zuen hark. Dokumentu hark Ugaran bailarako elizateei (Uribarri, Garagartza eta Udala) Arrasate udalerriri batzeko baimena ematen zien. 1353. urtea zen.

Nahasmena sortzen du Bañez abizenak. Batzuek Yañez esaten diote, beste batzuek Ibañez eta beste batzuek, Bañez. Jatorrizko abizena Yañez zen; hala erabili zuten XIV. mendearen amaierara arte. XV.etik aurrera Bañez moduan geratu zen behin betiko.

Yañez abizena Britainiako hiri bateko Bedoña izeneko etxetik dator. Itxura denez, Ramiro La erregeari laguntza ematera etorri zen hango jauna, normandiarren kontra borrokan egiteko. Hemen geratu zen eta Artazubiagatarren orubean etxea egitea erabaki zuen,

*Jatorrizko abizena
Yañez zen. XV.
mendetik aurrera
Bañez moduan
geratu zen*

*Bañeztarren
ondorengoek 1448an
Arrasate erre
zuteneko borrokan
parte hartu zuten*

Bedoña auzoan (XV. mendeko idatzietan Bedoya moduan agertzen da auzoaren izena). Han Yañez Dorrea eraiki zuen.

Gizon esanguratsua izan zen Martin Yañez. Sasoi hartan kontrako ziren bi bandoetako baten buru izan zen (Ganboatarrrena). Hala, Juan Yañez izeneko batek su eman zion Bedoñako Artazubiagako orubeko etxeari, Gebaratarrak



UBANE MADERA

Erdiko kalean beharrean, Iturriotz kalean dago, gaur egun, Artazubiagako Bañeztarren jauregia.

Leintz bailarako jaun egin zirenean, ez zuelako haien mendeko bizi gura. Harrezkero, Arrasaten bizi izan ziren Bañeztarrek, Erdiko kalean eraikitako beste dorre baten.

Martin Yañez de Artazubiaga Mary Ibañez de Salinasekin ezkondu zen. Zenbait seme-alaba izan zituzten. Horietako bat, Juan Bañez, izan zen aitaren ondorengo, dorreko jaun

eta bandoko eta leinu-etxeko buru. Bidaurreko Hauria Ibañezekin ezkondu zen eta Otxoa izeneko semea izan zuten. Hark zeresan handia izan zuen Arrasaten.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko irailaren 12a / 76. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Ikasturte berriko aurreneko osoko bilkura egingo dute, gai mordoarekin

U.M.

Ikasturte hasierarekin batera, Aramaioko Udalak abiada hartuko du, egunerokoari aurre egiteko eta atzeratutako gaiak eguneratzeko. Hala, datorren eguaztenean, hilak 17, osoko bilkura egingo du udalbatzarrak. Eta gai zerrenda luzea izango dute aztergai.

Esandako moduan, atzeratutako gai asko landuko dituzte eguazteneko batzarrean. Besteak beste, herriko lanekin lotutako gai dezente aztertuko dituzte zinegotziek.

Besteak beste, lursailen kalifikazioa dela-eta, Zabolako auzokideek egindako proposamen bat aztertu beharko dute.

Beste auzo batera joz, Arexolako gasifikazioa izango dute berbagai zinegotziek. Hain zuzen, gasifikazio lanak egiteko Repsol

enpresarekin kontratua sinatzea aztertuko dute.

Bestalde, Matxain kalearen gainean ere egingo dute berba. Izan ere, kale hura zabaltzeko lanak egiteko, Aramaioko Udalak ez du adostasunik lortu zenbait bizilagunekin. Horren ondorioz, lanok atzeratu egin dira. Eta lanok egiteko jasotako dirulaguntza bueltatu egin beharko du Udalak. Hori jakinaraziko dute batzarrean.

Bestalde, Eguzkierripa auzoko lanak luzatu egingo direla jakinaraziko dute. Aurreikuspenen arabera, urte hasierara arte edo martxo ingurura arte luzatuko dira lanok.

Horrez gainera, eta lanak alde batera utzita, Hamalau taldeak egindako eskaera aztertu beharko dute zinegotziek. Hain justu ere, zinegotzi diren neurrian, Udaleko aktak, deialdiak, eta abar eurei ere bidaltzeko eskatu dute.



Oraindik ez dago adostasunik Udalaren eta Matxaingo zenbait bizilagunen artean.



Eguraldi eskasa, baina giro ona

Azken urteotan moduan, eguraldi eskasari aurre egin eta, aurreneko jende dezente hartu zuen domekan Marixekarako bidea, oinez zein automobilez. Eguraldi kasakarra, osterara, ez zen aitzakia izan ondo ez pasatzeko. Eta jendeak hala egin zuen.

Eguerdiko elizkizunarekin hasi zen jaia. Ostean, txosna zabaldu zuten jaiaren antolatzaileek. Era berean, arratsaldeko erromerian jende ugari geratu zen dantza saioa egin edo, beste barik, jai giroaz gozatzeko.

Duela 20 urte hasi ziren Marixeka Eguna ospatzen. Jaia egiteaz gain, egun horretan ibarreko eta inguruko herri askok bat egiten dute Marixekan: Aramaio, Arrasate, Otxandio eta Legutio, adibidez. Urteroko elkargune bihurtu da Marixeka. /U.M.

LABUR

Gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina abian

Irailero moduan, Osakidetzak gripearri aurre egiteko kanpaina abiarazi du. Datorren astelehenean, hilak 15, hasiko da eta urriaren 31n bukatu. 65 urtetik gorako guztiei eta gaitasun kronikoa duten 65 urtetik beherakoei (diabetea, bihotzekoa...) zuzendutako kanpaina da. Guztiek Aramaioko ambulatortara jo beharko dute txertoa hartzerako, 09:00etatik 13:00etara. Ezinduek, berriz, etxean hartu ahal izango dute txertoa, medikuari edo erizainari esanda. Komeni da txertoa hartzeko txanda hartzea.

Manex Agirrek bihar, zapatua, saioa du Arrasaten

Manex Agirre bertsolariak saioa egingo du bihar Arrasateko gaztetxean. Eneko Barberenarekin batera eta *Kulturisten Kofradia* izeneko ekitaldian, munduko idazleen errezitaldia egingo dute. 19:00etan hasiko da saioa.

Bañera elkarteak jokalariai behar ditu aurten

Bañera Kirol Elkarteak jokalariai behar ditu areto futbollean jokatzeko. Hain justu, kadete mailarako (14-15 urte) eta gazte mailarako (16-17 urte) behar ditu. Interesatuak kiroldegira dei dezatela (945 44 53 35) 17:00etatik 21:00etara.

Udako zinema bukatzeko beste pare bat aste

Irailaren 27ra arte segituko dute udako zinema ematen. Hala, bihar, zapatua, *Austin Powers, miembro de oro* izeneko filma emango dute. Gogorra ezazue udako zinemako emanaldiak kultura etxean direla, 22:00etan.


Altxorra dute Salgo auzoko Okarantza baserrian; historiarekin lotutako altxorra

U.M.

Aramaion txanponen bilduma duen lagun bat zegoela jakin genuen, eta hara joan ginen, jende askok egiten duen ohiko bilduma izango zelakoan. Baina a ze ezustekoa hartu genuen! Izan ere, izugarritzko balio historikoa duen bilduma erakutsi ziguten.

Okarantza baserri ederrean aurkitu genuen Pablo Maria Beitia, bildumaren egilea. Egundoko bilduma dauka. Bi zatitan banatuta. Horixe argitu zigun ezer baino lehen. Bildumetako bat pribatua da, pertsonala. Eta bestea saltzekoa. Biak hala biak ikusgarriak dira benetan; historia- ren ikuspuntutik ezinbesteko garrantzia dutenak. Ez dira halako asko egongo inguruetan.

Izan ere, antzinako txanponen bilduma egiten du Pablo Maria Beitia. Oso antzinakoak. Pentsa, Kristo aurreko txanponak eta guzti ditu gordeta bere bilduma berezian. Baina, goazen zatika.



Euskal Herriarekin lotura zuzena duten txanponak batzea izan da Pablo Beitiaren zaletasunetako bat.

BILDUMA PERTSONALA

Euskal Herriarekin lotura zuzena duten txanponak batzea izan da Pablo Beitiaren zaletasunetako bat. Berarendako bilduma egiteko, bilduma pertsonala. Nafarroa independente izan zen sasoi- tik hasita ia gaur egunera arteko txanponak ditu. Eta txanpon bakoitzak Euskal Herriaren historia- ren zatitxo bat kontatzen du.

Aramaio-ko bildumagileak kontatu digun moduan, Santxo Nagusiaren garaian, penintsula- lan, arabiarra ez zen guztia Santxo Nagusiarena zen; Galiziatik hasi eta iparralde guztia, hain justu ere. Santxo Nagusiak semeen artean banatu zuen zati guztia. Eta seme Santxo Gartzinari Nafarroa eman zion, Aragoi ibairaino. Horrela, Okarantza baserri- ko bilduman, Santxo Gartzia- ren (1.035. urtetik) sasoi- tik Luis XIII.aren sasoi- ra arterainoko txanponak ditu (1594. urte inguru- ra), txukun-txukun ipinita, bakoitza bere kronologiarekin. Eta, jakina, Pablo Beitia berak txanpon bakoitzari dagokion historia zatia buruz daki.

GAZTELAKO ERREGINA ETA ARAMAIO

Txanpon horietako batzuk bakar- rrak dira, ez daude beste inon. Ezta Nafarroako museoan, ezta beste inongo museotan ere. Aramaio-ko Salgo auzoan bakarrik. Adibidez, Urraka andrearen irudia duen txanpon bat dauka Pablo Beitia, txanpon bakar horietako bat.

Urraka andrea (1109-1126 urte- ak) Gaztelako erregina zen eta Nafarroako eta Aragoiko Alfon- tso I.aren ezkondu zen. Bitxi- keria moduan, Pablo Beitia- k kontatu digu Urraka andrea ondo konpontzen zela Bizkaiko Jaure- gien

Kristo aurreko txanponak eta guzti ditu Pablo Beitia Okarantza baserrian

rriarekin. Eta, itxura denez, Aramaio-ko joateko ohitura zuen, Salgo auzora, hain justu ere.

Horrez gainera, Juan eta Blanca errege-erreginen garaiko (1425-1479 urteak) txanpon bat duela ere kontatu digu Pablo Beitia. Hori

Nafarroa independente izan zeneko txanponekin bilduma pertsonala egin du

ere bakarra da.

NAFARROA BITAN ZATITUTA

Beste sasoi baten, Juan eta Catalina- ren (1512. urtean) garaian, Fernando errege katolikoak Nafarroa konkistatu zuen, Iruñerai-

Munduko txanponen artean denetik dauka: sestertzioak, marabediak... Guztiak saltzeko

no. Eta, Nafarroako errege-erreginak (Juan eta Catalina) Donibane Lohizunen ezkutatu ziren. Hala, sasoi hartan Nafarroako txanponetan Nafarroako zatike- ta hura irudikatu zuten, eta Fran- tziako eta Nafarroako armariak,

“Nafarroako piezak gurako nituzke”

Horrelako zaletasun handiaren gainean bestelako zalantza batzuk ere argitu dizkigu Pablo Maria Beitia:

Non erosten dituzu txanponak?

Enkanteetan. Jeneralean bilduma pribatuetan egoten dira halakoak, eta enkanteetan erosten dira. Bestalde, nire txanponak Gasteizen saltzen ditut; bilduma pribatuak egiten dituztenei saltzen dizkiet. Domeka goizetan azoka antzerako bat egoten da (Espainiako probintzietako hiriburu guztietan egoten dira halakoak, Donostian izan ezik). Eta laster, erretiratzen naizenean, Nafarroara joateko asmoa daukat. Hilean sei-zazpi bat enkante hartzen ditut.

Noiz hasi zinen bilduma egiten? Zelatan?

Nik abadeekin hartu nuen zaletasun hau. Antzinako gauzak haiek erakutsi zizkidaten,

eta batzen hasi nintzen (liburuak, txanponak...).

Zein da zure helburua?

Nafarroako bildumarako ahalik eta pieza gehien lortzea. Eta gero, bildumak egiten dutenendako piezak lortzea.

Zerekin egiten zituzten antzinako txanponak?

Erdi Aroan, 1300. urtera arte-edo, txanpona zilarrekin eta kobreakin egindako aleaziodun txanponak egiten zituzten. Gero, Juana I.aren sasoi- tik aurrera, zilarrezkoak zeuden, zilarrezkoak eta kobrezkoak eta urrezkoak. Nik neuk urrezko txanponen bat zein beste ere badut.

Emakumeen irudia askotan azaltzen da...

Bai, batez ere Nafarroako eta erromatarren garaiko txanponetan. Espainiakoetan, aldiz, Fernandoren emaztea, adibidez, ez zen existitu ere egiten.

biak, agertzen ziren. Eta horren adierazle diren txanponak ere baditu Pablo Beitia.

Bere bilduma Nafarroak erregea izan zuen azkeneko garaira artekoa da; Enrike IV.aren garaira artekoa (1594. urtea).

Hortik aurrera, adibidez, Errepublikaren garaian Euskadiko gobernuak ateratako txanponak ere baditu. Eta, jakina, baita tar- teko garaietakoak ere.

SALTZEKO TXANPONAK ETA BILLETEAK

Horrez gainera, lehen esandako moduan, saltzeko txanponekin egindako beste bilduma bat dauka Pablo Maria Beitia. Horiek ere antzinakoak. Mundu osokoak. Eta, lehen esandako moduan, zenbaitzuk Kristo aurrekoak (Kristo baino 50 urte lehenago Erromako Errepublika egon zene- koak ditu, adibidez). Eta feniziar- ren, grekoen, erromatarren, bizantziarren, bisigodoen, arabi- arren, feniziarren, iberiarren... garaietako txanponak ere baditu: sestertzioak, marabediak (marai- koak), denarioak...

Espainiakoei dagokienez, Errege Katolikoen sasoi- tik hasi eta ia gaur egunera arteko txanponak eta billeteak ditu (Carlos I.arenak, Isabel II.arenak, Carlos II.arenak, Fernando VII.arenak...). Billeteak, berriz, plantxa izene- koak dira, erabili barikoak, eta oso egoera onean daude.

Lehen esandako moduan, txanpon eta billete horiek Gaste- izen saltzen ditu Pablo Beitia.

BESTELAKO TXANPONAK

Horrez gainera, oso bestelako txanpon bereziak ere badaude Okarantza baserrian.

Pablo Beitia kontatu digun moduan, 1910. urtetik I. Errepu- blikaren garaira arte, Alfontso XIII.a erregeak ez zuen gura Espainiako Bankutik zilar asko- rik ateratzea txanponak egiteko. Ondorioz, Espainiako eta, jakina, Euskal Herriko leku askotan euren txanponak egin behar izan zituzten. Hala egin zuten, esate- rako, ELA-STV eta CNT sindika- tuek eta zenbait kooperatibak. Txanpon desberdinak ziren, biri- bilak, karratuak, orladunak... Edozelan ere, bere balioa peze- tan neurtzen zuten. Hala, Pablo Beitia bi sindikatu horiek ate- ratako txanponak ditu. Baita zen- bait kooperatibak atera zutene- nak ere; adibidez, Sociedad Bene- fica de Placencia atera zituen txanponetako bi Okarantzako bil- duman daude.

NON ETA NOIZ SALDU EDO EROSI

Bukatu baino lehen, Pablo Beitia- k jakinarazi gura izan du txanpo- nak edo billeteak saltzeko edo erosteko interesa duenak bere etxera jo dezakeela: Okarantza baserrian bizi da, Aramaio-ko kanposantura bidean. 17:00eta- tik aurrera egoten da etxean.

ERRETRATUZAHARRA

Amaiur batailoikoak Burgosen

Azkenaldian gerrako kontuek indarra hartu dutela-eta, sasoiako beste argazki bat ekarri dugu gure tartera.

Burgosko kartzelan preso egon ziren Amaiur batailoiko ofizialak dira. Honako hauek, hain zuzen ere. Goian, ezkerretik eskumara: Ramon Jauregi (kmis. pol.), Imanol Muxika (ttea.), Eugenio Murua (ttea.), Pablo Bolinaga (ttea.), Jose M^a Gallastegi (ttea.), Telesforo Goienetxea (ttea.), Joseba Barrutia (kaptana.) eta Joakin Garmendia (kaptana.). Bigarren ilaran: Pedro Zeberio (ttea.), Jose Sarriegi (ttea.), Gerardo Zubillaga (kmis. pol.), Bonifacio Apalategi (kaptana.), Eusebio Ansoleaga (ttea.) Agirre (tte. dinamitaria) eta Patxi Arruti (ttea.). Eta eserita: Francisco Murua (kaptana.), Fernando Aristizabal (ttea.), Roman Bidaburu (ttea.), Agapito Uriarte (ktea.), Eugenio Oianguren (kaptan.), Ascensio Garmendia eta Vicente Juldain (ttea.).

Gure berriemaileak ondo asko gogoratzen du Joakin Garmendia atxilotu zutenekoa: "Alemaniarrek



botatako lehegailuek zauritu zuten, Bizkaian. Konortea galduta eraman zuten ospitalera. Han zegoela esan zuten nazionalak sartzekotan zebiltzala. Jendea iheska hasi zen, eta hala egin zuen Joakinek muleta eta guzti. Euskaldunak Frantziara eramateko gertu zegoen itsasontzi batera jo zuen, baina

han nazionalak atxilotu eta kartzelara sartu zuten, Santoñan. Handik Burgosera eraman zuten, sei urte eta erdirako. Kontatu digutenez, hango bizi-baldintzak eskasak ziren. Lau lagunendako ziegetan hogeitik gora sartzen zituzten. Eta bik paseatzea gura zutenean, beste guztiak bazterrean egoten ziren, lekua


egiteko. Beharrak konketa bakarrean egiten zituzten; presozainek astean behin husten zuten.

Argazkia: Arrasate 1936, belaunaldi etena
Informazioa: Angeles Azkarate
Urtea: 1942


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Une gogorak bizita ere, aurrera

Arrasate, Kooperatiba baten ibilbidea liburuak kontatzen duenez, 1964an Fagor Arrasate lantegiko aurreikuspenak ez ziren bete. Merkatua gogortu egin zen, eta Arrasateko lantegia baino garatuago zeuden lantegiek kompetentzia gogorra egiten zuten. Sasoi hartan hasi ziren zutabe bikoitzeko makinekin lan egiten, baina hasieran emaitza txarrak eman zituzten.



≈ 1965 Zutabe bikoitzeko makinek leku asko behar zuten, eta 1965ean Fagor Arrasate eraikina handitzeko lanak hasi zituzten.



2003 Ortuak zeuden tokian lantegiak daude orain. Azken urteotan asko hazi da Fagor Arrasate, baita kooperatiba ere.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak



CIMen
gogor egiten zaizkizun
irakasgaiekin lagunduko
dizugu.

Astelehenetik
ostiralera, 17etatik
aurrera

Eta Hizkuntzak denontzat

- Haur, gazte eta helduentzat
- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Mediateka zure esku dohainik
- Club CIMeko ekintzak
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Multimedia sistemak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan



Arrasate - Gipuzkoa
Araba etorbidea,4 Tel.: 943 71 20 55
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com



ingelese euskara hizkuntza matematika

2003-2004 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza:

EUSHALDUNTZE maila guztiak.
EGA.
HIZKUNTZA ESHAHIZUNAK.
ALFABETATZEA.
ARRASATEKO EUSKARA.
MINTZAMENA lantzeko ikastaroak.
Holektibo desberdinei zuzendutako ikastaro berezituak:
MERHATARIAK, GURASOAK

Erritmo eta ordutegi egokituak:

Egunean ordu 1, ordu 1,5, 2 ordu
Astean bi, hiru, lau eta bost egunetan.
Txandakako taldeak.

Beka sistema daukagu. Informa zaitez!

Matrikula epea:

Irailaren 1etik 19ra.

Bulego Ordutegia:

Goizean: 10:00-13:00
Arratsaldean: 15:00-18:30

Garai honetan indarra behar duzu. Baina euskara beti. Horregatik zure behar profesionaleri, familiarterkoei, kulturaleri egokitzen den euskara eskaintzen dizugu eta gainera...

MATRIKULA DOAN ERE IZAN DEZAREZU!

ARRASATEKO Udal Euskaltegia
Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net



oporren ostean indarra beharko duzu... euskara beti!

UDAL
EUSKALTEGIAK



ARRASATEKO Udal Euskaltegia

www.udaleuskaltegiak.net

Opel Meriva berria



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

%100 Meriva | %100 malgua



Konturatu zara malgua izanda etekin handiagoa ateratzen diozula bizitzari? Izan ere, horrela askatasun handiagoa daukazu. Bost, lau, hiru edo bi eserlekuren artean aukeratu gura duzu? Eserleku guztiak etzangarriak izatea gura duzu? Horiek aurrerantz eta atzerantz eraman ahal izatea gura duzu? Baita aldeetarantz ere? FlexSpace sistemak milaka aukera eskaintzen dizkizu. Zuretako egin dugu. Opel Meriva berria da.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es